



## **IRU ZIRI (IPUI TA BERTSO)**

**Pedro Migel Urruzuno**

Iturria: *Iru ziri (ipui ta bertso)*, Pedro Miguel Urruzuno  
(Antonio Zavalaren edizioa). Auspoa, 1965.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/U/UrruzunoIruZiri.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **IRU ZIRI**

### **ZIRILO, ZIRIAKO TA ZIRIKILLOTE**

#### **I**

#### **ZIRILO**

—Aizazu, Praisko, zer izen da ori?

—Izena izango da.

—Baña Zirilok, zer esan nai du?

—Lo dagoan ziriya izango da.

—Ezta ba orixe lotiya, nik uste dedanez. Lo daudenak esnatzeko ona izan bear du.

—Beraz esnalea izango da.

—Ala uste det.

—Baña, Euskal Esnalea?

—Eztet uste: Señorito Zirilo esaten diote ta.

—Ezta ba izango eskalea noski; e?

—Eztakit; baña emallea're ez du ba izan bear.

—Artzallea ote da?

—Edo kentzallea.

—Beraz beraren kontuz ibilli bearko degu.

—Obeko da.

—Aditu niyonian  
gizon zartxo bati  
ez-ezagunagandik  
ibiltzeko urruti,  
itz-leunduna bazan  
oraindik obeki,  
esan ori gogoan  
iduki det beti.



## II ZIRIAKO

Obe zukean Ziriakok Praiskoren bertso ori ondo ikasi balu.

Uste zuan onek Zirilori ziri bat sartuko ziyola baña Zirilok sartu ziyon berari.

Lenbiziko aldiz kasinuan ikusi zuan Ziriakok Zirilo. Onek zeukan eskuetan, guziyai erakutsiyaz, zigarrontzi (petaca) eder bat; urre ta perlaz apainduba zirudiyen, baña Zirilok esaten ziyen guziyai, urre ta perla ayek etzirala egizkoak, baizik ezteraziyak (fingidos).

Ziriakok begiya laxter ezarri zion zigarrontziyari, ta eskatu ziyon mesedez Zirilori, uzteko gau artan berari, ondo ikusi nai zukeala-ta.

Utzi zion Zirilok, eta azkar juañ zan Ziriako Txauton zillargillearen etxera, zigarrontziyak zenbat baliyo ote zezakean galdetzera. Bost milla pezeta gutxienaz esan zuan zillargilleak baliyo zituala.

—Egizkoak ote dira urre ta perla oyek? —galdetu zion Ziriakok zillargilleari—.

—Bai, bai. —erantzun ziyon zillargilleak—; orañtxe bertan emango dizkitzut bost milla pezeta, saldu nai badidazu.

—Ondo da —esan ziyon Ziriakok—: bigar agertuko naiz.

Bigaramon goizean biyurtu ziyon zigarrontziya Zirilori: eskerrak emanaz, eta onek gorde zuan.

Illuntzian kasinuan elkartu ziran bi ziriya, au da. Zirilo ta Ziriako; an zebillen eskutik eskura zigarrontzi ori, ta Ziriako eldu zan milla pezeta beragatik Zirilori eskeintzera. Erantzun ziyon onek salduko ziyola: bañan etzuala engañatu nai, eta guziyen aurrian esaten ziyola, urre ta perla ayek ezteraziyak zirala. Ala ta guziz ere Ziriakok eman zituan milla pezeta, eta egiñ zan zigarrontziyaren jabe.

Bereala joan zan zillargillearen etxera bost milla pezeta artzeko ustean zigarrontziyarekiñ: bañan, uraxe bai zala ziriya! uraxe bai adarra jotzia! Zigarrontzi ura etzan aurreko egunekoa: geyenez lau pezeta baliyo zituan.

Zigarrontziyaren barrenen arkitu zuan Ziriakok papertxo bat, esaten zuana:

Zu otsua bazera  
ni naiz azeriya  
orra ederki sartu  
dirutan ziriya.

## III ZIRIKILLOTE

Ziriakok ixillik zeukan ustez bere ziriya: Zirilo ezkutatu zan erritik, baña Zirikillotek gxuziya zekiyan.

Ziriakok, ziri bat sartzeko ustian, saldu ziyon Zirikilloteri zigarrontziya eun pezetan.

Zirikillotek atera zuan nunbaitik ere Ziriloren aztarrana baita arkiture kapetxe eder batean.

Bera zegoan alboko mayean jarri zan Zirikillote: an zerabilten eskutik eskura zigarrontzi eder bat; noizean beñ esaten ziyen Zirilok, etzirala egizkoak aren urre ta perlak baizik ezteraziyak.

Eldu zan zigarrontzi ori Zirikilloten eskuetara, baña, ala bearra zan guziya!; eskuan irristatu eta erori zitzayon magalean zeukan txapelera.

Laxter atera ta ipiñi zuan mai gañean... bañan... ez ura... Zein ba? Ziriakori eun pezetan erosi ziyona, ta eskutik eskura an zerabilten aurre-ra're prozesiyoan.

## IV

Zirikillotek saldu ziyon Txanton zillargilleari bost milla pezeta zigarrontzi berriya. ta itxu batek eresten (kantatzen) zuan urrengo egun batian:

Señorito Zirilo  
eta Ziriako,  
biyak dira berdiak  
nola edo alako;  
baña Zirikillote  
obea dalako,  
biyeri ziri onak  
sartu dizte bapo.

«Euskal-Esnalea», Tolosa'n  
1909 - Uztaillaren 15'an



## IJITO BATEN KIEBRA

### I

- Aizazu, Iñazi: zeñ degu or aurrian dagoen gizon beltz ori?  
 —Pelix ijtoa.  
 —Ikatzarekiñ egiña al da?  
 —Ezteizula berak aditu.  
 —Zergatik ba?  
 —Zergatik? Aurki erantzungo dizu, azala beltza badin ere, barrua zuria duela, eta ezuala, beste asko bezela, kanpotik zuri eta barrutik beltz.  
 —Nik uste det ba kaupotik beltz eta barrutik beltzago izango dala.  
 —Beñepeñ, badezpadan ere utziozu ixillik, gaizki esaka ipiñi eztezazun.  
 —Ondo da. Eta nor da atso bizardun ori?  
 —Mari Martiñ.  
 —Pelixen ama?  
 —Batzuek ama dala diote, besteak amona, besteak izeba, besteak emaztea eta... orrela... (Akelarreko... Presidenta dala ere... baño, ixo).  
 —Errespetoa izango du.  
 —Errespetoa diozu? Esango nuke. Jende guziak nai du orrekiñ adis-kide izan, begizkoren bat egin ezteien, eta erregalo xamarrak ere biltzen zaizkio ondotoxo.  
 —Lanik egiten du?  
 —Bai: guardasolak konpondu, lapiko zarrak alanbratu ta orrela.  
 —Eta Pelixek?  
 —Saskiak.  
 —Beste opiziorik eztu?  
 —Izan bear dei peste bat, ixilikakoa, iñori erakutsi nai eztiona, eta ondotoxo irabaztekoa.  
 —Nun ikasi ote du?  
 —Nunbait ere. Gaztela aldian korritua da ta an ikasia izan bear du: beñepeñ ala dirudi opizioaren izenak.  
 —Zer izen du ba?  
 —Todo-todo mio.  
 —Aaaaa...!

### II

Alargundu zen Pelix, eta berriz ezkontzeko asmotan zebilela zioten. Zor batzuek bazituen errian, baño artzekodunak etziran atrebitzen eskatzen, Mari Martiñek begizkoren bat egingo ote zien beldurrez; au il zanean, beste Mari Martiñek etorri baño len, jua zitzaizkion Pelixi kontuak egitera.

- Neri ezer eman didazute? —galdetu zien Pelixek—.  
 —Zuri edo zure emazteari beñepeñ bai —erantzun zioten.  
 —Nere emazteari?  
 —Bai, zure emazteari.  
 —Zeñ emazteri?  
 —Mari Martiñi.  
 —Ura etzen nere emaztea.  
 —Etzela zure emaztea?  
 —Ez; eta, probatzen badirazute ala zela, kontu guziak pagatuko ditut. (Beñepeñ ezkontzako partidarik eztezute arkituko ta...).  
 —Probatuko dizugu ba.  
 —Ikusiko degu.

### III

- Anbrux!  
 —Zer nai du, juez jauna?  
 —Ezagutzen dezu Pelix?  
 —Bai, jauna.  
 —Zer modutako gizona da?  
 —Onradua, jauna, beria egiñ ezkerro.  
 —Eta zor pagatzallea?  
 —Orixe eztaikit, baño artzekoak kobratzen azkarra da.  
 —Ezkondua da?  
 —Alarguna, jauna.  
 —Zeñ zuen bere emaztea?  
 —Andre Martiñ, gartzetan sarjento tropan izana, eta guk erregia beziñ maite genduen.



- Probatuko zenduke oek biok senar-emazteak zirala?  
 —Probatu, juez jauna? Bai, noski.  
 —Ea ba zer esaten diguzun.  
 —Gaur amalau illabete siñalamente, goizeko zazpitan izan zuten aserre andi bat.  
 —Zergatik?  
 —Ara ba, jauna: patar geitxo artuta edo.  
 —Zeren gañian izan zuten?  
 —Pelixek esaten zuen Mari Martiñen pipa andiagoa zala berea baño eta belar geiago erretzen zuela, eta neri deitu zidaten konponsizio bat egitera.  
 —Eta zer egin zenduten?  
 —Bi pipak apurtu, ekarri berri bat eta agindu pipa artatik biak aldizka puma zezatela.  
 —Eta ala egin dute?  
 —Bai, jauna: urte bete osoan, egunian lau aldiz, biak pumatu dute pipa batetik.  
 —Egia da, Pelix?  
 —Jauna... egia da... baño...  
 —Beraz, ama baten bularra edaten dutenak anaiak badira, zu ta Mari Martiñ izan zerate senar-emazteak.  
 —Ondo da, jauna. Amen.

#### IV

Pelix gizon argia zen, erderaz ondo ta legeak ere bazekizkien, eta ala bigaramonean jarri zuen atean letrero bat:

#### KIERBA JUNTA DE AKER-EDORES

- Aizazu, Iñazi: zer esan nai du *aker-edores*-ek?  
 —Eztakizu zer dan akerra?  
 —Bai.  
 —Badakizu zer dan *hedor*?  
 —Eztakit.  
 —Ba da kiratsa, usai txarra.  
 —A...! Ori akerrak berekiñ du.

#### V

- Juez jauna.  
 —Zer nai zenduke, Pelix?  
 —Nik eziñ pagatu nitzake eun ta berrogei pezeta; erdiak barkatuko balizkidate...  
 —Konprome —erantzun zuten artzekodunak—; erdiarekiñ oso kontentu gera; eztegu ardit bat ere geiago nai.  
 —Ondo da —esan zuen juezak.  
 Bi asto, oe bat, kutxa bat eta gañerako tresnak irurogei ta amabost pezeta inguru balioko zutela uste zuen Pelixek. Atera ziran errematera, eta arizekodunak asi ziran pujatzen, baita ere elkarren artean apurtxo bat minberatzen: ori nai zuen Pelixek. Tresna guziak igo zuten errematian eun ta irurogei ta bost pezetara. Artzekodunai eman zizkien juezak, esan bezela, irurogei ta amabost, eta Pelixi larogei t'amar. Erremat au izandu zen loteria bat Pelixentzat. Gaba zen: atera ziren danak etxetik; juezak, atea itxirik, artu zuen giltza; esan zien:  
 —Bigar goizean, amarretan, etorri zaitzte guziok, bakoitzak bere tresnak, errematian artu bezela, eramatera.  
 —Ni ere bai? —galdetu zuen Pelixek.  
 —Ez, eztegu zure bearrik —erantzun zuen juez jaunak.  
 —Malegro, siñor —esan zuen Pelixek.

#### VI

Bigaramon goizean, amarretan, an ziran zintzo guziak. Pelixen etxea utsik arkitu zuten eta sukaldeko atean bertso au:

Ijitoekin asten  
 duenak auzia,  
 denboraz galduko du  
 duen on guzia,  
 todo-todo mio-ri  
 zor diot guzia,  
 ez det damu izango  
 auzitan asia.



Asi ziran aztarranak ateratzen, baño alperrik. Bakarrik gauza bat jaki zuten: Pelixen etxeko atea zerralla bat, baño bi giltz zituala, bat Pelixek juezari eman ziona, eta bestea Pelixek Mari Martiñen errekuerdotzat gorde zuena.

1902-ko Epaillaren 24-an

«Ibaizabal», 14, 1902-ko Jorrrailla-ren 6-n.

## AUZI BAT

(*Aurtengo (1914) indar-neurtzeetan saria irabazia*).

### I

Lorretako sukaldean, aspaldiko gabetan, bazebillen erlea: au da, zurrumurrua. Eztakit gaur, Parisen ta Berliñen artian ere, hainbeste estabaida ote dabillen.

Matxalenek erderaz ikasi nai zukian, bere ama Anemarik etzion eragozten, baña «Zertarako dezu erdera» esaten zion amak alabari.

—Zertarako? —erantzuten zion alabak-; eskale erdaldun bat atera badator ere, ulertu eziñ eta...

—Ogei t'amalau urte badaramazkit Lorretan, ta oraindano ateondora etorri izan diran eskale erdaldun guziaz ulertu diet. Artaburu bat, ogi zati bat edo gazta apurtxo bat emanarekiñ, erdaldun guziaz ederki ulertu diet, eta aiñ ondo berak neri.

—Lengo zarren kontuak —esan ta buruari atz egiñaz, ixildu oi zan Matxalen, ala nai ezpazukian ere.

Matxalenek, erderaz ikasteko aitzakiz, Madrillera jua nai zukian, Amoteiko Josepa bezela, eta amak igartzen zien alabaren asmoai.

Gati baten, beste askotan bezela, eraso zioten elkarri ama-alabak, eta amak esan zion:

—Erdera orren bearra bazaitzu, errian bertan ikasi zinezake.

**ALABAK.**— Nun?

**AMAK.**— Sánchez barkillogillearen etxean. Neskame billa omen dabill, eta...

**ALABAK.**— Leku onera bialdu nai nazu. Lengo egun batian eman zidan lotsa Prantxez edo traste orrek...

**AMAK.**— Nola?

**ALABAK.**— Ni nere bidez kalia barruna nijuala, «Hola, moza» esan zidan, eta kolore gorriak atera ziztan.

**AMAK.**— Zer esan nai izan zizun ba?

**ALABAK.**— Gauz on aundirik ez; motza naizela.

**AMAK.**— Ori ulertu baziñon, nik baño erdera geiago dakizu, ta eztezu iñora jua bearrik erderaz ikasteko.



**ALABAK.**— Ez ba; agure mortzill aren neskame juango naiz eta bai ederki eman ere.

**AMAK.**— Neskame jua ta etxeoandre egin zindezke.

**ALABAK.**— Eta gero barkilloak saltzera. Amak.-Bai; baña erderaz.

**ALABAK.**— Eskarrik asko. Ortarakoxe nagoala uste al dezu?

**AMAK.**— Bai al dakizu, txindurria nola ill zan?

**ALABAK.**— Eztakit aditu're egiñ ote dedan beñere.

**AMAK.**— Ba jakiñ ezazu, ill zala, astuaren arrantza egiñ nai ta egiñ eziñez. Lertu ta ill egiñ zan.

**ALABAK.**— Eztakit, zer esan nai dezun.

**AMAK.**— Zu Madrillera juateko asmoetan zabilta, beste batzuek jua diralako. Orixe da nai zendukiana.

**ALABAK.**— Nik ba... nik eztet esaten ezetzik ere, baña...

**AMAK.**— Baña baietz esango, zenduke noski.

**ALABAK.**— Eztakit ba.

**AMAK.**— Nik bai. Eta orixe izango litzake astoaren arrantza egiñ nai izatia.

Matxalen. mormorretan bere artian, aldendu zan, auzia galdutzat emanaz, esaten ziola bere buruari: Gure ama sorgiña eztanik ere, enuke esango. Nundik dakizki orrek nere asmoak?

Amak berriz bere artian esaten zuan:

Lengo zarren esana  
beti da egia:  
sua dagon lekutik  
irtetzen da kia.

## II SENAR-EMAZTIAK

**EMAZTIAK.**— Zez deritzozu, Praisko, gure Matxelen burutazioai?

**SENARRAK.**— Zer dakar ba, Anemari?

**EMAZTIAK.**— Madrillera jua nai luke.

**SENARRAK.**— Zertara?

**EMAZTIAK.**— Erderaz ikastera.

**SENARRAK.**— Onuntzago're ikasiko du, ori baño ezpada.

**EMAZTIAK.**— Oraingo umeak, beñepeñ emakumeak, oso arroak dira.

**SENARRAK.**— Bai lengoak ere.

**EMAZTIAK.**— Ez genduan ba guk orrelako arrokeririk gaztetan.

**SENARRAK.**— Ez ote? Miriñakia jazten zenduanian, arrotxo agertzen ziñan ba zerori ere.

**EMAZTIAK.**— Guk miriñakiak soñian oi ginduzen, baña oraingo gaztiak buruan dabiltzkite; guriak errian kabitu oi ziran, baña oraingoak probintzian ere ez. Zepeliñak baño're aruntzago eldu nai lukete, ta, juaten bazaigu etxetik gure Matxalen, egingo duana da, «aizia buruan ta ibilli munduan», ta gero bere ta gure ondamedia etxeratuko digu.

**SENARRAK.**— Etzaitte estutu; nere baimenik gabe ezta ezer egingo Matxalenek, eta nik baimenik eztiot emango nolana, baizik ondo pentsatuta.

Onenbesterekiñ zerbait paketu zan Anemari, baña oso ez; bada esaten zuan: Anton bera baño ere kaiku aundiagoa da gure Praisko, ta alabak loxentxen batzuek egiten badizka, orixe askoko da bere baimena emateko.

## III AIT-ALABAK

Egiaz amak ondo ateratzen zituan kontuak. Egun batian, onek ezkututik aditzen zuala, ari ziran izketan ait-alabak.

**AITAK.**— Matxalen.

**ALABAK.**— Zer da, aita?

**AITAK.**— Zer burutazio darabiñ?

**ALABAK.**— Eztakit ba, zer esan nai duan.

**AITAK.**— Madrillerako asmoak al ditun?

**ALABAK.**— Asmo andirik ere ba...

**AITAK.**— Zer arraie egiñ bear den Madrillen?

**ALABAK.**— Zu ere zartuaz zuaz, zartzara atsedean puskatxo bat ondo etorriko zaitzu ta...

**AITAK.**— Eta i Madrillera juanarekin, zer irabazten diñagu?

**ALABAK.**— Ez al dakizu. Upelteiko Marik zer egiñ zuan? Or dabill oraiñ automoillean bere senar eta gurasoakiñ, jauregi ederrean guziak bizi dirala.

**AITAK.**— Eta uste al den i ura bezela izango aizala?



**ALABAK.**— Zergatik izan ezingo naiz? Ura're ni bezelaxe zan len, ta ni gero ura bezela izan nindeke. Marik berak esan zidan, oraindik egun asko ez tala, bere etxera mirabe jua nai banuan, soldata ona emango zidala, bere senarraren anaia're ezkongai zegoala, emazte euskalduna nai zukiala ta... ez nua geiago esatera.

Bazijoan agure gizajoa sarean sartuaz, eta erantzun zion alabari ondo zerizkiola aren asmoari, beñepeñ barkillogille baño obeki izango zala, baño bere baimena eman aurretik, gizon batekin ibenkidatu edo konsultatu bear zula. Gau artan ta ondorengoetan agure gizajoa automoillean, amesetan, asko ta asko ta oso ederki ibilli zan. Amesetan aña ederki bazebillen, zer izango ote, zan, gero ames oiek egi biurtzean?

#### IV ANEMARIREN ASMOAK

Ait-alaben artian esan zan guzia aditu zuan Anemarik, eta bere barru guzia irakiten zeukan. Bere estatusnian eskatu zion Aita San Antoniori adimentuko argia, ta lagun zegiola arren bere estatusnean, aginduaz emango zituala bi pezeta beartsuen ogitarako. Aditu zion Santuak bere erregua.

Bazuan Praiskok adiskide bat oso maitea, ona ta jakintsua, Aita Santuaren urrengotzat zeukana. Probintzi guziak ezagutzen zuana zan, baño alare elikio inork igarriko nor zan. Gizon au zan Segurako itxua; gizon argia adimentuz, bada esan oi zuan Praiskok, begietako argiak burura iges egin ziola jaun oni. Itxuaren esanak artikulu fedekoak ziran Praiskorentzat.

—Badakit zer egiñ —esan zuan Anemarik—: itxurekin egongo naiz, nik argituko det bera, ta ark argituko du Praisko.

—Aizazu, Praisko —esan zion gau batean Anemarik bere senarrari—: Bai al dakizu zeñ ikusi dedan gaur Millaprankan?

**SENARRAK.**— Zein ikusi dezu?

**EMAZTIAK.**— Segurako itxua, ta zure galde andiak egiñ dizkit.

**SENARRAK.**— Nik sinistu: gizon ori da, lurbira guzian dan jakintsuen bat, beñepeñ nere iritzian.

**EMAZTIAK.**— Esan diot ba, etorri dedilla San Migel-egunian gurekiñ bazkaltzera.

**SENARRAK.**— Ondo egiñ dezu.

**EMAZTIAK.**— Bai, pentsatu det, zuk ere naiko zenduala ta.

**SENARRAK.**— Bai, errege bera baño're pozagorik ikusiko del Segurako itxua nere etxian.

—Bai nik ere —esaten zuan Anemarik bere artean— beñepeñ egun orretan.

Eta egiaz ala nai zuan, bere senarrari adierazteko etzala ono, Matxaleni etxetik irtetzen uzta. Ortarako eman zion itxuari eskupeko bat Millafrankan, ta itxuak agindu zion, al guzia egingo zuala. Anemarik ondo zekian Kaiser-en kañoi guziak baño indar geiago izango zuala itxuaren erretolikak Praisko menderatzeko.

#### V SAN MIGEL-EGUNA

Meza nausia prailleak egiñ zuan sermoiarekin entzun, ta jarri ziran maian bazkaltzeko itxua, bere emazte Manu ta etxeokak.

—Zer iritzi diozu praillearen itzaldi edo sermoiare? —galdetu zion Praiskok itxuari.

—Uste det —erantzun zion itxuak— ederragorik etzedala beñere entzun. Ainbeste milla aingeru zerutik infernura boteak izan zirala. Euskal erria zerua bezela dala, emen ere badirala aingeruak, au da, gazteak, gurasoen mende ez egoteagatik erdal-errira dijozenak beren ondamen-diaren billa, ez tutea errurik gutxien auei uzten dieten gurasoak...

Matxaleni bere barruak irekiñ bear zion, ta esan zuan apal-apal:

—Eztiot ba nik orrelako gauzik aditu prailleari.

—Ixo zu —esan zion aitak—: zu oraindik lumatu gabeko txorikume, kabitik irten gabia zera. Lo egon al zera elizan?

Matxalenek arrazoia zuan. Prailleak etzuan aitaure Euskalerriko gauzik. Itxuak praillearen itzaldia ezarritako arabakiak ziran guziak. Anemariri zion zorra ordaintzeko.

Baña nork esan ezer Praiskori itxuaren kontra, berak aditu bazuan ondo prailleak esan zuan guzia?... (ta esan etzuana're bai noski).

Illuntzian, etxerakoan, esan zion itxuak Praiskori:

—Benturaz eztegu geiago alkarrekin egoterik izango, bada biok goaz zartuaz eta agur egiten dizut Josafateko zelaira arte.

—Ondo da —erantzun zion Praiskok—, baño nai nuke, ez beste gauzik, baño bai bertsotxo bat gure azkeneko batzar onen oroipenean.





—Tira ba —esan zuan itxuak, eta asi zan brin... brin... bran... bran...;  
kitarra tenplatu eta erestu zuan:

Nai badezute zorionean  
bizi senar-emaztiak,  
Euskal-erria oso maitatu  
eta or konpon bestiak;  
guri begira ondamuz daude  
kanpoko erri guztiak,  
Euskal-erritik kanpora joaten  
ez bitez utzi gaztiak.

—A biazon deizula zuri! —esan zion Praiskok—. Amaikaxto egi  
esan dituzu zere denboran, ta ez txikiena, nere biotzaren erdian josita gel-  
ditzen dan gaurko au.

Alkar besarkatu ta aldendu ziran bata besteagandik.

Matxalen, negarrari eutsi eziñez, bazijoan bere gelara mormorretan  
esanaz: «A, itxua, itxua! “Emden” baño're txarragoa zera zu. Ark galdu  
ditu itxas-ontziren batzuek, baño arterañoan, batzuen-batzuek, aietan  
ederki ibilli ziran, baño zuk ondatu dituzu gure automoillak, jaso baño len.  
Jaungoikoak barkatu degizula».

Anemari juan zan kutxa kiskera, artu zituan bi pezeta, ta bigaramo-  
nian San Antoniori bota zizkanian, esan zion:

—Milla esker, santu miragarria, bada

irabazi det zure  
laguntzaz auzia,  
eta orrenbestez da  
amaitu guzia.

«Euskalerrria», 71-72, 1914-1915

## JAI BIKO ASTEA TA BELARRITAKOAK

### I

Astean jai bakar bat gutxitxo zala iduritzen zitzaion Bortolori, eta  
bere lagun asko ere iritzi ortakoak ziran: baño esan egiten zuten bakarrik.  
«Igandeetan ezta irikitzen lantegi au».

Ala zeukan idatzirik Bortoloren nagusiak bere lantegiko atean. Ezta-  
kigu nork, baño norbaitek ere ipiñi zuan idazki orren oñean: «Astelenetan  
idikiko ezpalitz ere, ez genduke negarrik egingo».

Nork ipiñi zezakian idazti ori? Eztakigu; baño eztabaida andiak  
zebiltzan, langilleen artian. Batzuek zioten igandea animarentzat, eta aste-  
lena gorputzarentzat bear zirala: besteak berriz igandea naikua zala, anima  
ta gorputza, bientzat.

Bortolok esan zuan, berak etzuala gizon erdika izan nai, eta bereala-  
tik ontzat ematen zuala jai biko astea, eta berak emango ziola asiera aste  
oni:

Alperrak billatzen du  
beti lan berria,  
bada zarrak gogortu  
oi dio gerria;  
iztun ederra baño  
lanean urria,  
lanik ez egitea  
bere egarria.

### II

Bortolok astelena igaro zuan ardantegian, eta illuntzian abiatu zan  
etxeruntz, eta bazijoan mormorretan: beretzat guziak ziran gaiztoak;  
ardo-saltzalleak, lapurrak agintariak, arroak; apaizak, diru-zaleak; eta ala ta  
onela; baño Bortolo, gizon onradua. Ala zion berak. Bidearen unetxo



baten arkaitz batek zeukan oiartzun edo ekoa, eta Bortoloren itzak berriz-tatzen zituan. «Nor da neri burlaz?» zion Bortolok. Atzera begiratu ta, bere itzala ikusirik, norbait zalakoan, ematen dio ukabilkada andi bat... ormari, eta eskuiko bi biatz apurturik eldu zan etxera, esanaz, gizakaxkar batekin burruka egin zuala, baña jipoi ederra eman ziola.

Zortzi egunez ezin lanik egin izan zuan. Aste santua zala zirudian Bortoloren etxian. Itz gutxi, porru-salda, ur preskua, ta bizi ill artian.

Nola gure Bortolok,  
iztuna izanik,  
aste guzian ere  
eztu zer esanik?  
Gizajoa badago  
itz egiñ eziñik,  
iltzeko ere eztu  
bear beste miñik.

### III

- Zer berri aspaldian. Bortolo?
- Estu xamar lengo aste ortan.
- Jai biko astian?
- Bai.
- Zer izan da ba?
- Legortea.
- Nun?
- Gure etxian.
- Zer dala-ta?
- Ardo gabeko astea, ta ogirik irentsi eziñ.
- Nola izan da ori?
- Jai biko astearen ondorena: lanik ez, irabazirik ez, eta zurrutik ez.
- Beraz etzaizu ondo atera lenengo arabe edo prueba.

Gure Bortolok orain  
aitor du egia,  
aste batean bi jai  
dala geiegia,

ardo gabe irentsi  
eziñik ogia,  
obe dala jarraitu  
len degun legia.

### IV

- Aizazu, Praiska.
- Zer degu, Bortolo?
- Gure etxian oraindik aste santuak al dira?
- Zergatik galdetzen didazu ori?
- Porru-salda, sardiña zarra, ardorik ez, ur preskua, ta kia besterik ez. Zer esan nai du orrek?
- Bi jaiko astean dendan egin zan koxka, nolabait ere osatu egin bear dala.
- Nere lepotik?
- Zure erruz egindako koxka da ta...
- Eta ez giñan ba ezkondu elkarri laguntzeko?
- Eta zuk neri zertan laguntzen didazu?
- Egunero zugatik erregutzen diot Jaunari.
- Eta, zer eskatzen diozu?
- Etzaitezela alargundu.
- Etzaite ba aurrerakoan nekatu ori egiten, bada uste det, zure emazte baño txarrago enaizela izango zure alarguna.
- Bortolok esaten zuan Bere artian, emazteak arrazoa ere bazuala.
- Etxean aste santua zerabilten, baña ardantegian aleluia zerabilkian Bortolok.
- Baña nundik? —esaten zuan Praiskak—. Emango nuke pezetatxo bat beartsuen ogitarako, ezkutapen edo misterio ori azaltzeagatik.
- Etzuan izan eman bearrik.
- Praiskak zeuzkan urrezko belarritakoak, Bere amak erregalo egiñak ezkondu zanean, eta urtean bein jazten zituan. San Antonio egunian ipiñi nai ta ezin arkitu izan zituan, eta uste izan zuan, alabak gordeko zituala.
- Meza nausira zijoala, elkartu zan ardozale edo trabernariaren emazte Erramunarekin, eta ura zan arritzeko gauza! Erramunak zeramazkian ipiñirik Praiskaren belarritako urrezkoak! Etzuan izan onek pezeta eman



bearrik ezkutapen edo misterioa azaltzeko, baña esan zuan Bortoloren emazte baño Bortoloren alargun... baña ixo, ixo!...

Nere amak Paristik  
ekarritakuak,  
nun zerate, urrezko  
belarritakoak?  
zenbat kalte dakarren  
aste jai bikuak!  
arren zuzen gaitzala  
gure Jaungoikuak.

«Argia» 64 zenb., Uztaila 9, 1922

## IJITO BATEN KONFESIOA

### I

Etzan aĩn erdalzalea ere Peillo ijitoa, baiño, jai-egunetan eta itxurazko gizonakin itz egitean, oi zituan erderakadatxo batzuek.

Bere egitekorik arduratsuen a oi zan Pazkoakoa; batez ere aitortze edo konfesioa; ez pekatu andirik eta askorik zuelako, baiño etzizaion batere gustatzen erretore berriaren oitura. Onen aurrekoarekiñ oso ondo oi zetorren, jo ta pasa, jo ta pasa, ederki, bapo; baiño onek, au da, oraingoak, ortik ziri eta emendik ziri, imitxak baio txarrago, etzuen pakerik ematen; guzi guzia zeatz jakin bear. Orlako zazpikirik! Jesus, Jesus! Onela jardun ta gero danak berari esan bear.

Gogorazio auekin eldu zan Peillo erretorearen oiñetara, aitortze edo konfesio on bat egitera.

### II

—Ezer ostu dezu?

—Ez, Jauna: oztu ez; berotu ere... iñoiz andreari bizkarra izan ezik...

—Eztizut galdetzen *oztu* baizik *ostu*.

—Ai! Ebatsi edo lapurtu esan nai du. *Errobar*, e?

—Bai, orixe ta bera.

—Uste det, jauna, nik andreari bizkarra ez-ezik, bedorri ere berri-txuren batek berotu diozkala belarriak.

—Galdetzen dizut ezer ostu dezun.

—Lapur-pama badegu baiño...

—Eztizut galdetzen zeren pama dezun, baizik ezer ostu dezun.

—(Auxe dek gizonaren jakin bearra!...). Ez naiz oroitzen, jauna, baiño bedorrek ezeren kezkarik balu nitzaz, esan beza prankeza guziarekiñ.

—Egurrik erosten dezu?

—Ez, jauna.

—Surik egiten?



—Bai, jauna; eta, gogoia duenean, etorri bedi gure etxera kaponada bat artzera, eta berotu bat emango diogu, plit eta plot, gaztaiak erretzen diran bitartean. Ikusiko du su ederra gure sukaldean.

—Gazteñegirik badezute?

—Ez, jauna.

—Gaztaiñarik erosten?

—Ez, jauna.

—Iñork eman?

—Ez, jauna, baizik gerok artu iñor inkomoratu gabe.

—Nundik?

—Nundik... nundik!... Bada... dagoen lekutik.

—Eta leku ori norena da?

—Izenez Don Kalendario-rena, baiño izanez... nork daki? Ara, jauna, egi egia: Jaungoiko gure Jaunak egin zuen mundua guzientzat, etzuen sartu iñun mugarririk, baiño Adanen semeetan batzuek ziran *ton-toak*, eta besteak *agudoak*; guk degu jatorria lenengoetatik, baiño aiek ton-toak izanaz eztegu guk *kulparik*. Paperetan ezta arkitzen ezer saldu zutenik, eta orregatik gure tokamenak ere emen urrean izan bear dute. Bigarren oiek —*agudoak*— ziran mugarri sartzailleak, baiño beren buruz, arrazoiaren kontra, eta ala kontu egiten degu mugarri-rik eztagoala, eta bera-gatik seguruen seguruen da, bakoitzak, iñor inkomoratu gabe eta ixil-ixilik, al duena artzea pake ta amorio santuan.

—Begira: eztegu emen pillosopia bearrik. Esan zazu: zeinbat zaku gaztaia dituk eramanak?

—Asko ez, jauna.

—Zeinbat?

—(Au zazpikia!) Ara ba, jauna, zortzitxo bat izan ditezke, baiño izan ditezela zazpi.

—Zeinbaten saltzen da zakua?

—Al dan aibatean: iru pezetan, lauan, iñoiz bostean ta ala.

—Zazpi lauko, ogei ta zortzi. Emaiozkatzu ogei ta zortzi pezeta Don Kalendario-ri eta kito; eztago bestela absoluzorik.

—Jauna, eman begit *azaoliozia* eta nekea pagatuko diot.

—Ezin nezake.

—(Ezin lezakela...! Ta jarri gizona *ablidade* geiago gabe leku orretan Pazkoako denboran!...). Beraz...

—Eztago beraz-ik eta pillosopiarik; ordaindu eta etorri berriz absoluzioa nai badezu.

—Ondo da, jauna; agur, eta datorren urtera arte.

### III

—Aizak, Peillo.

—Zer nai du. Don Kalendario?

—Mandua moztu bear dirak.

—Noiz nai du?

—Astelenean.

—Ongi da, jauna; eta adi beza: bedorri *letraua* dan ezkeroko galde bat egin bear diot.

—Asko balioko dik ire galdeak.

—Asko edo gutxi, dana dala, or dijoa: zer da obe? artzekoa ala zorra?

—Artzekoa. Asko dituk artzekoak?

—*Sobra*, jauna. Baiño goazen: kito ala artzekodun da obe?

—Nik naiago diat artzekodun kito baio

—(Datorrela oraiñ «zazpiki» neri erakustera zer egin bear dedan...).

Nik sinistu, jauna, ori ala dala.

### IV

—Orra bada Don Kalendariok zer dioan. Naiago du orrek kito baiño artzekodun egotea. Zertarako emango diozkat ba nik orri ogei ta zortzi pezetak?... Kitatzeko?... Ez, ez; orrek naiago du artzekodun kito baiño, eta nik ere ondo derizkiot. Eta gu biok konprome bagera, zer dauka zer ikusi «zazpiki»? Eta ala ere bereala pagatzeko, eta bereala atzera biurtzeko beragana. Bai, bai, ago piska bat: exerita baago, ni orrera orduko atzeko aldea ,minberatuko zaik.

«Ibaizabab», 8, 1902-ko Otsaillaren 23-n.



## LARRUTIK ATERATZEN DIRA UGALAK

### I

- Begira, Pontxo.  
 —Zeri begiratu, bear diogu, Simon?  
 —Gauza bati.  
 —Bat baño ezpada...  
 —Lenbizi beñepeñ bat.  
 —Zer degu ba?  
 —Ezterizat ondo, beti bat agintzen eta beste guziak aren mende bizitzea.  
 —Zer nai zenduke ba egitea?  
 —Mudantzen bat.  
 —Beraz bat obeitzen eta beste guziak ari agintzen?  
 —Ezta ori ere, baña diputau batzuek ipiñi ta aiekin batian Ministro-ak legiak egiñ ditzala.  
 —Beraz botoetara jua bearko degu.  
 —Ala bearko.

Gizon alper askotxo  
 dauzkaten erriak,  
 nai izaten dituzte  
 beti lan berriak.

### II

- Zer berri, Simon?  
 —Berri onak.  
 —Zer egia dezute botuetan?  
 —Irabazi.  
 —Ala iragazi?  
 —Zer ba?  
 —Larrutik ateratzen dira ugalak eta...  
 —Zer, eta?

- Eztezu ulertzen ala?  
 —Ez.  
 —A! Ulertuko dezu laster, berandutxo izango da baña...  
 —Euskeraz ari ta alare ulertu eziñ. Ze arraye...?  
 —Esan dizut laster ulertuko dezula.  
 —Zer ordia?  
 —Larrutik ateratzen dirala ugalak.  
 —Laster eta errez ikasteko gauza bada, utzi degiogun oraiñ...  
 —Nola ibilli zerate botuetan?  
 —Ederki. Bost duro eta bazkari ederra eman dizkigute beñepeñ eta...  
 —Eta gauz onik ezer egiteko itxurarik badago?  
 —Bai: iturria, zubia, bide berria ta eztakit zenbat gauza geiago.  
 —Oietxek egiñ arteko osasuna nai nuke nik, naiz-ta bigaramonian ill.  
 —Eztirala egingo este dezu?  
 —Bai, gizona, bai, baña arterañoeko osasuna nai nuke.

Diputau jaunak digu  
 askotxo agindu,  
 emango ezpadu're  
 naikua egin du.

### III

- Asarre al gera, Simon?  
 —Bai, ta oso asarre alare.  
 —Zer da ba?  
 —Koutribuzio andia bota digute ta...  
 —Bai; diputauak ere bizi bear dute ta...  
 —Gure lepotik?  
 —Bai; len zuek aien lepotik bezela.  
 —Noiz?  
 —Botuetako egunetan.  
 —Bai berak emanta.  
 —Oraiñ berak kenduta, baña pozgarri bat badezute.  
 —Zer ba?  
 —Aurtengo kontribuzioa eztala andiena.



- Beraz urrengoak andiagoak.
- Dudik gabe. Diputatuak gastatu dutena atzera bildu arte.
- Eztakit ba orixe.
- Jakingo dezu laster:

Diputau jaunak jartzen  
dituzten legiak,  
idikiko dizkate  
askori begiak.

#### IV

- Pontxo: ezer atera al dezute memorialetik?
- Ez. Ministruak erantzun digu, gerok bialdutako diputatuak ipiñi dutela kontribuzio ori, eta urrengorako ikasteko.
- Zer ikasi?
- Ara zer dion azkenik:

Jakin bezate nire  
mendeko leialak,  
larrutik ateratzen  
dirala ugalak.

#### *Postdatan.*

- Zer da ba larrua?
- Zueri emandako bosna duro ta bazkariak.
- Eta ugala?
- Kontribuzioa.
- Aaaa...!
- Beeeee...! Auxe da lenengo leziua, eta izan dedilla azkena're.
- Ala izan dedilla.

«Euskal-Esnalea», 1915 – Jorrailla - 15-ean.

## IJITOEN DIBORTZIOA

### I

- Aizazu, Santi.
- Zer nai zenduke. Dibortzio?
- Zuk onuzkero badakizu legeen berri.
- Bai, gure *Patriarka* zarrak adiña beñeipeiñ.
- Argatik nator ba zugana.
- Zer gertatzen zaizu ba, gizona?
- Emaztearekiñ nabill okertxo.
- Ori baño ezpada, erremedio erreza dezu. Ibilli zaitte zuzen.
- Errez al da?
- Ardoa merke badago... ezta aiñ errez ere, baña *posillbe*.. bai.
- Eta ni zuzen ibillita ere, ura zuzen ez padabill?
- Zei da ura?
- Nere uztarri-laguna.
- Urrepiña?
- Bai.
- Bamos*..
- Bamos*, bai; baña uztarriko bei bat zuzen ezpadabill, bestea nola ibilliko da?
- Eztago akulurik?
- Akulukadak berak ematen ditu ark.
- Urrepiñak?
- Bai, jauna, bai; urre piñ-piñak.
- Nola ordia?
- Atzo esan zidan bera bazala bere izenaren jabe, baña ni «ez izan eta ez izango» nere izenaren jabe. Nik eztakidala nere izenaren *sinipikan-tza*, baña aren izenarena mundu guziak dakiala eta guzien gogokoa dala. «*Erretxupleta*: Ke te parese uste pues?» esan eta lotsaturik utzi ninduan.
- Eta eztakizu zuk «*dibortzio*» zer dan?
- Ez ba, jauna, ez; eta orixe arpegira ematen dit, eta lotsatu egiten nau.
- «*Dibortzio*» da senar-emazteak alkargandik apartatzea.
- Ori baño ezta?



—Ez.

—Eta ala ere ez naizela izenaren jabe, zazpi aldiz andreagandik apartatuta?

—Zazpi andre utzi dituzu?

—Ez; bat zazpi aldiz.

—Urrepiña utzi dezu zazpi alditaraño?

—Bai, zazpi aldiz, *ni más ni menos*.

—Eta berriz ere berarekin alkartu?

—Baita.

—Beraz arrazoa du Urrepiñak, esatean etzerala zu izenaren jabe.

—Eztu ba maiz esango; *dibortzioa* zer dan erakutsiko diot.

## II

—Ola, nere adiskide maiteak! Emen zerate?

—Bai ba, *Patriarka* jauna, ementxen gatoz.

—Zer berri, Dibortzio?

—*Dibortziatu* egiñ nai nuke.

—Eta zer diozu zuk, Urrepiña?

—Urrepiñak nun-nai izango duela estimazioa, Dibortziok baño obeki.

—Ondo da, onda da; izango dezu premia.

## III

—Esan ezazu, Dibortzio: zer motibo dezu *dibortziatzeko*?

—Asko, jauna.

—Esan ezazu bat.

—Izenaren jabe egitea.

—Beste bat.

—Ez nauala maite nere emazteak, txakur onetxek ainbat ere.

—Egia da ori, Urrepiña?

—Munduan dan egirik andiena, atzekoaz aurrera. Berak ni adiña, nik bera maite det.

—Zer diozu, Dibortzio?

—Probatuko diot esan dedana; au da, ez nauala maite nere emazteak, txakur onek adiña.

—Ia nola probatzen dezun.

Deitu zion txakurrari Dibortziok, eta eman zion makillarekin jipoi andi bat. Ala ere miaztu zizkion txakurrak nagusiari eskuak eta arpegia, mesede andi bat egin bazion bezela.

—Ikusten du *Patriarkak* zenbat maite nauan txakurrak? —esan zuan Dibortziok.

—Alaxe da —erantzun zuan *Patriarkak*.

—Betor ba oraiñ, Urrepiña, jipoitxo bat artu, ta txakurrak egi duana egitera.

—Eskerrik asko, senartxoa: *ni tanpoko urrik eman*. Oraiñ nik itz egin bear diot *Patrakar* zarrari.

—Egiozu ba.

—*Patrakar* jauna: esan diot len, nik maite dedala senarra, berak ni adiña. Txakur onek baio geiago ez nau maite, eta probatuko diot.

—Ia ba, Urrepiña, ia nola portatzen zeran.

—Berealaxe, jauna.

Atarian zegoan putzu andi bat, eta ango ura edaten zuten; an garbitzen zituzten beren ontzi zar guziak eta baita baiñuak artu ere. «*Buska!*» esan zion txakurrari, eta bota zuan putzura egur bat. Bereala joan zan txakurra ondoren, eta ekarri zion egurra, eta *asperges* bat ere eman zien inguruko guziari, bere gorputz bustia astinduaz.

—Egingo didazu, senar maitea, txakurrak egin duana? —esan zion Urrepiñak senarrari.

—Egingo nuke —erantzun zion—, baña beste gauza bati begiratu bear zaio. Ur gutxitxo dago putzu orretan nere biotzaren zuganako amorioaren sua iltzeko. Sartuko banintz putzu orretan, uste det bereala agortuko litzakela, eta gero?... kontuak izango lirake...

## IV

Erabaki zuten apartatzea: ara belaunikaturik *Patriarkaren* aurrian, eta au aopian mur... mur... mur... zerbait esaten: «*Veinte años casar, malpasar, ahora casar*» esanta, *kisk kask*, jotzen zituan buruan senar-emazteak mailukatxo batekiñ: baña *operazio* luzetxoa zijoa, eta ala, galdetu zioten *Patriarka* zarrari:



—Noiz arte iraungo du operazioak?

—Bietatik bat ill arte.

—Gaurko naikua degu, jauna, eta bigar etorriko gera berriz.

—Zoazte ba Jaungoikoarekiñ, eta etorri nai dezutenian.

Joan ziran, eta gaur arterañoan ezta aien beste berririk, baizik *Kelemete* kutxaragilleak ikusi zituala beñ alkarrekin Donostiako *plasa-de-torosen*.

1903-ko Urriaren 5-ean «Ibaizabal»,  
93, 1903-ko Urria-ren 11-n.

## ESKU-JOKUAK

### I

—Orain ere emen dator ba Trapuzar.

—Baita nai ere.

—Zer berri dakartzu?

—Berri berririk ezta kart ba.

—Zergatik ipiñi zizuten zuri ez-izen ori?

—Trapu-zar?

—Bai.

—Juizioan sartu nintzalako.

—Beraz gu ez gaude oraindik juizioan sartuta.

—Ezta zazpi leguaz ur ematen ere.

—Noiz sartuko ote gera ba?

—Beñepeñ orrenbeste bitxi-lore ta berriketa apaintzeko dabiltzuten bitartean ez.

—Jesus, gizona! Erreta ote zauden nago.

—Ez; baña, egosita len egondu nintzan.

—Noiz?

—Apainduri ta berriketetan nenbillenian.

—Eta trapu zarrez jantzi ziñanean?

—Ordutik ondo; tituloa neregandu nuan da...

—Barrerik asko eragiñ ere bai jendeari.

—Bai, ta debalde.

—Bai al zuaz gaur gabeen erriko-etxera?

—Zertara?

—Barre egitera.

—Eztegu ara juan bearrik barre egiteko; ezta eragiteko're.

—Ez, ez, promal esate'izut: abildade andia omen dauka gazte orrek esku-jokuak egiten.

—Bai; ta pezeta ematera zoazte aiek ekustearren?

—Uste artan gaude.

—Bai, juizioan sartu arte; zuen lepotik bai, egingo du gazte orrek barre ederki.

—Beste gauz askoren artian omen daki besteren sabeletik dirua ateratzen igarri're gabe.

—Ori izan diteke, baña orrekin barre gutxi eragingo du.





- Orra ba: ta gutxi al da?  
 —Ez, baña kontuz ibilli.  
 —Guk eztegu eramango beñepeñ arditik ere, ta eziñ aterako digu.  
 —Ez piyatu.  
 —Nola aterako digu eramaten ezpadegu?  
 —Ez piyatu.  
 —Zergatik ordia?  
 —Trapu-zarri arrazoa eman bearrean arkitu etzaitetzen.  
 —Izango dezu zuk oraiñ ere ipuiren bat.  
 —Bai, atso zar batek, errege gaizto bat esan oi zion: «Jaungoikoak eman dezaiola bizi luzea».  
 —Zure modukoa izango zan.  
 —Bai; tira atso zar eta ni Trapu-zar, biok zarrak.  
 —Gaiztoa izan, eta alare bizi luzea opa zion ba?  
 —Baña atso zarrak (Trapuzarrek bezela) zuek baño juizio geiago zuan, (gaitz ere ezta ta).  
 —Zergatik?  
 —Ezagutu omen zuan atso ark errege aren aitona, eta omen zan gaiztoa; gero erregen aita, gaiztoagoa; azkenik errege bera, oso gaiztoa; au iltzean nolakoa izango ote zan onen semea?  
 —Kontu orretan deabrutxoren bat.  
 —Orrengatik ba; deabruaren mende ez arkitzeagatik, nai zukean atso zarrak, errege luzero bizitzea.  
 —Eta ortik zer ateratzen dezu?  
 —Ezagutu nuan esku-jokuak egiten dituan gazte orren aitona. eta zan alper aundi bat; ezagutu nuan aita, eta zan alper aundia eta jokalaria; semea uste det izango dala alper, jokalaria ta sakel-ustutzallea.  
 —Ba, ba! Trapu-zarren kontuak.  
 (Sinismen bageari):  
 —Bi belarrietatik  
 baldiñ bada gorra  
 eta gañera badu  
 burua gogorra,  
 iñola're izango  
 ezta siniskorra.  
 Baña elduko zaio  
 denboraz zigorra.

## II

Gabeko zortzietan Erriko-etxeko sala guzia jendez oso betea zegoan. Jo zortzi t'erdia, jo bederatzia, eta etzan ageri esku-joku-zalea. Jendea asi zan mar mar mormorretan, baña alperrik. Zer gertatzen zan? Esku-jokuaz gañera anka-jokua egiñ nai izan zuala.

Milla txartel (billetes) saldutakoen dirua artu zuanean, esan omen zuan: «Zer esku-joku oberik au baño? Oraiñ anka-jokua egiñ dezadan». Orduan asi zan jendea juizioan sartzen, eta Trapu-zarri arrazoa ematean. Pena zuten, baña alperrik.

Berriz bazetorkean gazte on errira, konponduko zuten! Bai orixe!...  
 Baña...

Ametsik onena're  
 beti da ametsa,  
 esnatu ondorean  
 dana ezer-eza,  
 baña alperrik dala  
 nornaik jaki beza  
 ura juan ondorian  
 egitea presa.

(Trapu-zarrek)

*Posdatan.*-Trapu-zarrek oraintxe sinisten du gazte ark badakiela bes-  
 teren sakeletik dirua ateratzen igarri're gabe, eta gañera uste du, jendea  
 juizioan sartuaz juango dala.

«Baserritarra», n.º 121, 1909-ko Orrillaren 22-an.



## IJITOEN EZKONTZA ETA KONJURUA

### I

- Aizazu, Mari-Terex: bai aldakizu nor ezkontzen dan bigar?  
 —Eztakit: nor degu?  
 —Usabio ijitoa.  
 —Norekiñ?  
 —Mari-Karmenekin.  
 —Jesus!... Baiño ondo etorriko dira ijito biak alkarrekin; ala uste det. Itxurazko ezkontza dirudi. Eta alegia; nola ezkontzen dira? Elizaz, ala lapiko zarrez?  
 —Elizaz; oso promal dijoaz; Usabiok naiago omen zuen lapiko zarrez, baino Mari-Karmenek ez.  
 —Zergatik ez ote zuen nai Mari-Karmenek?  
 —Zergatik kontuak obeki ateratzen dituen. Lapiko zarra apurtzean, onik onenean, iru edo lau puska baiño egiñ ez-ta, bereala iru edo lau urteren buruan bizi-alargun gelditzeko? An ibilli bearko luke Mari-Karmen gaixoak, batek nai ez, eta besteak bear ez, nora eztakiela.  
 —Eta zer? Menturaz Usabiok billatuko ote luke berriz ere Mari-Karmen ainbatekorik?  
 —Ja, jai!... Orixe esan? *Konke* joan dan illean *arraskalatximeneari*, alar-gundu zanetik irugarren egunerako, amazazpi emaztegai joan omen zitzaizkion ateetara ta...  
 —Emakumea! Zer esaten dezu?  
 —Zer esango det? Zuk esan bear zendukena: *laustikristi*. ebanjelioaren ondoren esan bear dana.  
 —Nik zer dakit?  
 —Eztakizu amazazpi aietako bat Mari-Terex zala?  
 —Ni jua arraskalatximiniaren ateetara irugarren egunerako?  
 —Edo laugarrenerako.  
 —Jakin dezazun bada zer nola itz egin, esaten dizut, bostgarren eguna're bazala ni ara nintzaneko eta egingo dezu mesede urrengoan gauzak obeki jakinta esateaz, eta ez jardun berriketan lotsa gabe, alper, zital, petral, ergel, zikin, txaplata, kaxkar, kalder, zorritsu orrek. Nork eta zuk esan bear! ...

- Bai ba lertu da anditxua! Ezagun da lantzetaz erdi-erdian jo deda-la, ainbeste zikinkeri botatzen duenean. Au usaia! Tuff! Banoa igesi, agur.  
 —Agur, mingaiñ-luze ta lotsa-labur.

### II

- Orra ba oraiñ, Eusebio ta Mari-Karmen; ezkondu zerate, eta bizi zaitetze, Jaungoikoa lenbizi, eta gero zerok alkar maitatuaz.  
 —Bai, erretore jauna: esker milla berorri: eta esan beza orain zenbat dan berorren nekea!  
 —Ematen badirazute mezaren ordainsari edo *estipendioa*, amar erreal, eztet besterik bear.  
 —Bai, jauna: ezta gaizki esana: baiño begira: eta aditu beza ondo gauza bat. Ezkontzeko egiñ-erazi ditut zapata berriak, eta zapatariak, nonbait diru zaletxoa izanik, —eta ez berorri beziñ ondrua—, askotxo eraman dit zapatatgatik. eta urrengo egun batean eman bearko diozkagu amar errealak.  
 —Eztezute ezer eman bearrik. Zoazte eta ondo bizi zaitetze.  
 —Ondo da, jauna; baiño ezagutu ta estimatu dezan gure borondatea, egingo diogu saski polit bat alkandora parrantxatuak erabiltzeko.  
 —Ondo da, ta zoazte Aingeru zaitzaillearekiñ.

### III

- Erretore jauna, eguzkia artzera dijoa?  
 —Bai, Iñazio, oiñak puska bat berotuaz. Zapatariok ondo bizi bear dezute.  
 —Zergatik ba?  
 —Zergatik izanik oiña gizonaren zimendua, oiñetakoak diran gauzarik bearrenak.  
 —Bearrenak izan ditezke, baiño baita're lenengo ordaindu edo pagatu ez oi diranak, apaizai zorrik bazaie.  
 —Bestera're gero iñoiz gerta ditezke.  
 —Gero, eztet esaten gertako eztanik, baiño orain arte eztet uste gerta danik.  
 —Gaur bertan ez ote?



—Nik dakidala, ez jauna.

—Zenbat eraman diok Eusebio ijitoari zapatakgatik?

—Zenbat eraman dio berorrek ezkontzeagatik?

—Baterez.

—Nik ere ez.

—Aditu zak ba oraiñ neri zer esan didan: diruzaletxo aizala, askotxo eraman diokala zapatakgatik, eta urrengo batean ordainduko dizkidala amar errealak.

—Aditu beza ba orain, berrorrek ere, neri zer esan didan: Gure erre-tore gizajoa oso on-ona da; baño sakela du anditxoa, ta betetzen gaitza; askotxo eraman digu ezkontzeagatik, eta urrengo batean zuri zapatak ordaindu bearko dizkitzugu.

—Ederki ziok; biok berdin neurri, eta biok berdiñ ordaindu gaitzitik.

—Bai, jauna; bedorri ziri bat eta neri beste bat; ijitoak beti ijito, eta berena egin ta kito.

—Ez, neri agindu zidak saski bat alkandorak eramateko.

—Baita neri're seaska bat illobatxoentzako.

—Zer demontre? Oraindik aita egiteko antzik eztek eta aiton egin au?

—Ori izan dedilla okerrik aundiena.

—Ala izan dedilla ba, ta agur.

#### IV

Esamesarik asko bazan errian. Ezkonberriak oillozaleak zirala, oillo-rik izan ez arren, oillanka eta luma asko oi zala aien atarian, oilloak urri-tuz zijoazela auzoetan, eta orrelakoxe zurrumurruek, baiño... Ka!... Ka!... Ijitoak kontzientzia obekoak dira, enetxoa, zuek ez uste izanagatik.

Egun batean iru atso joan zitzaizkion erretoreari, *konjurua* egiteko esatera.

—Baiño zertarako nai dezute *konjurua*, emakumetxoak?

—Pizti txarren bat galtzeko.

—Zer gertatzen da ba?

—Oillotan ezin burutu degula.

—Badakizute nork egingo dizuten *konjuru* ori?

—Ez, jauna; berorrek egin ezik...

—*Guardiazibillak* ondoen egingo dizuete.

—Jesus! ez genekigun, baiño esango diegu. Ondo geldi bedi, erretore jauna.

#### V

—Goiz batean Usabio ta Mari-Karmen zijoazen bidez, bi *guardiazibillen* erdian. Nora? Bergarara. Urtebeteko etxea eta jana aseguratatu zituzten. Lana berriz egiñ eziñ-da izango zuten. Seaska bat ere bear baño berrogei urtez aurretik enkargatua bazuten, eta...

#### VI

Urte bete artan (*kasualidadez*) oilloak oso ugaltu ziran errian, eta jendeak esaten zuen:

—«Ezkontzeko, erretorea; baiño konjurua egiteko, *guardiazibillak*».

«Euskalzale», 4, 1899 Uztarrilla-ren 26-an.



## DON POLIPORKO TA MORTEROREN KONJURUA

### I

- Orra ba, kontuak nola diran.
- Zer degu ba?
- Don Poliporkoren begitantzioak.
- Zer begitantzio?
- Itzal egiten omen dio bere jauregiari prailleen kornentuak eta...
- Eta zer?
- Nik eztakit ba.
- Nik bai.
- Zer dakizu?
- Itzal geiago egiten diotela frailleak Don Poliporkori.
- Nork daki ori?
- Mortero esan dit.
- Orixe da jarduteko gogo.
- Zedorrek ere eztaukazu ixillik egotekoa.

### II

- Bazkari on bat eman zien egun artan Don Poliporkok erriko gizon batzuei, eta, jendea bero-bero egiñ zanean, asi zan jaun ori izketan:
- Jaunak, errian eztago pelota-lekurik —esan zuan.
  - Eztegu, ez —erantzun zioten.
  - Eta gauza bearra da gazteentzat.
  - Ala da egiaz.
  - Artarako leku egokirik ere eztegu noski.
  - Egoki-egokirik ere...
  - Nik uste det ba, komentu zar ori botata, ortxen egiñ ditekela ederra, ta kostu gutxirekiñ.
  - (...Ixillentzio! danak mutututa).

—An baño obea egi diteke emen, jauregi au botata —erantzun zuan Morterok... eta guziak gelditu ziran ixill-ixillik, «orazio mentalian». Morterok zioan bezela, eta azkenik «se levantó la sesión» esan zuan Don Poliporkok.

### III

- San Polikorpo eguna zan eta eman zuan aparti andi bat jaun onek; apal-ostean asi zan itz egiten prailleen gañean; (eta esan zuan Morterok: auntza beti mendira).
- Gizon onak bai, baña alper xamarrak dira praille oietzek —esan zuan Don Poliporkok.
  - Iñori morraletik ogirik jaten diote? —galdetu zuan Morterok.
  - Ez, gizona, ez; baña zertako ditugu urrenbeste alper xamarri?
  - Nik ezagutzen ditut ba, ez alper xamarrak, baizik alper andiak, eta iñoren morraletik janaz bizi diranak; zertako ditugu oiek errian?
  - Biba Mortero! —esan zuan Galtzarbe, ardoa baño mozkorrango eginda zegoanak.
  - Biba! —erantzun zuten besteak ere; baña zer esaten zuten etzekitela. Asi zan berriz Mortero izketan, pillosopo bat bezela, esanaz:
  - Jaun onek emango baligu egunero, gaur bezela, aparti on bat... or nunbait; baña nork emango die gure pamiliai eguneroko potajia praille oiek ematen duten bezela?
  - Biba Mortero, biba! —deadar egin zuten; ango ontzi-otsa ta ango triskantza andia zan, baña etzan ezurrik ausi, ta ez odolik ibaira joan, eta Don Poliporkok esan zuan: «*San se acabo*».

### IV

- Negargarria ala barregarria eztakit, baña badakit kontu uraxe etzala ondo.
- Plazan mitiña zan guzian, arrika ematen zioten komentuari, eta kristal guziak apurtuak zeuden, eta etzituan konpondu're nai Prai Pedrok. Zertako?



Konjuro bat egi bear zukela, esaten zuan jendeak, eta Morterok esan zuan, berak egingo zuala.

## V

Jai artan egi zan mitiñ oso andia, eta illuntzian an zeuden zerrepeldurik Xaguxarko trabenan Axeri, Millon, Tropel, Tomate eta beste auen moduko batzuek. Sartu zan bertan Mortero, airi pultsu artzera, eta ikusi zuan sakelak arriz beterik zeuzkatela.

—Jaunak, —esan zien—; teniola; jo bear al da?

—Bai; eta ez makala —erantzun zuan kortxok.

—Ondo egingo dezute —esan zien Morterok—; ni ere zuekiñ batean nijoak aurrengo.

—Biba Mortero, abiojondeiala iri! —erantzun zioten guziak.

Abiatu ziran oso illunean (baña etzuten parol bearrik: berak ziran parolik asko); zerbait aurrera ziranean, deadar egin zuan Morterok, lenbiko arria berak jaurtiz. «Ala, mutillak!»

An ziran istilluak! ... arrika... baña zeri?... Don Poliporkoren jauregiari. Etzuten utzi kristal bat osorik.

Bigaramonetik asi zan Prai Pedro kristalak konpontzen eta geroztik pakea andia dago.

## VI

Morteroren konjuruak ots andia eman zuan.

Baserritarrak eskeini noten anega bat gari arriaren kontrako konjuru egiteagatik, bañan erantzun zien Morterok:

—Nik eztakit egiten goitik berako arriaren konjurorik, baizik bakarrik betik gorakoarena, eta nai dezutenian abisatu.

## VII

Patxiturri bertsolari erdia zan, eta ala bota zion bere adiskideari bertso au:

Ikusi ta sinisten  
degu orain gerok,  
konjuru ona egiñ  
duala Morterok.

«Baserritarra», n.º 74, Agostua-ren 3-an, 1907-an



## IJITOA ETA JUEZA

### I

- Ola adiskidea! Orain ere emen zera?  
 —Bai, jauna. Adiskideak adiskidea ikusi nai izatea, arrazoezkoa da, ta bedorri ikustaldi bat emateko gogoz nator, aspaldian ikusi etzedala ta.  
 —Etzenduan ba asko txarrago izango ni emendik kanpora ikustea.  
 —Nun ordea?  
 —Nun-nai; egiñ dezagun kontu, nere etxian  
 —Eta nork utzi neri urreratzen bedorren etxera?  
 —Zergatik ez?  
 —Ori da nik ere esaten dedana: *¿por qué no?* Baña bedorren mirabeak eztigute uzten legua batez ere ur ematen bedorren etxeari. Besterik eziñ dutenian, txakurrari za-za eman eta ijitoari klausk.  
 —Egia esateko, mingaiñ txar batzuek diotenez, pama eskastxo daukazute.  
 —Eta mingaiñ txar batzuek diotenari kaso egigo dio juez batek, naiz bere mirabiak? Guk ori egingo bagendu....  
 —Zer? Zuek ori egingo bazenduteke, zer?  
 —Guk beron artean degun pama beziñ txarra izango lutekela berok gure artean.  
 —Zergatik ba?  
 —Mingaiñ txar batzuek diotelako, berok beti ari dirala libertadeak publikatzen eta kartzela berriak egiten.  
 —Beste gauzarik badezu esateko?  
 —Bai, jauna.  
 —Zer?  
 —Gu bezelakoakiñ bear lutekela izan berok konsiderazio geixeago.  
 —Zergatik ba?  
 —Gu ta gure modukorik ezpalitz, elitzake, beron, au da, juezen bearrrik; kolera batek ijitoak eta konpañia lurretik garbituko baginuz, juezak *cesante*, eta orduan *¿que tal?* Ori da mingaiñ txar batzuek esaten dutena gure artean.  
 —Bai, baña ez bakarrik mingaiñ txarrak, baizik onak ere zutzaz gaizki esaten dute.

- Ia egiñ beza pabore muestra bat emateaz.  
 —Orra or zure emaztea.  
 —Nere emaztearen mingaiña dio bedorrek ona dala? Eztakit nola egiñ dan bedori juez.  
 —Eta nola artu zenduan emaztetzat?  
 —Bedorrek artuko zuan moduan noski: obea zalakoan.  
 —Etzenduan ezagutu?  
 —Bai, jauna, baña berandutxo. Ordurako korapilloa eman zan, eta eziñ askatu gero. Orain buruari atz egitea alperrik. Ura juantakoan presa, alperrikako amesa. *Todo esto son alperrikako jardunes.*

### II

- Utzi ditzagun pillosopiak, eta esan zadazu: egia da emaztea jo dezuna?  
 —Ez, jauna, beñepeñ ark merezi adiña.  
 —Esan dizut, utzi egiñ bear dituzula pillosopiak, eta esan zadazu: jo dezu emaztea?  
 —Berak jo ninduan, jauna, igande gabeen.  
 —Etzera lotsatzen ori esaten?  
 —Ez, jauna; egiak ez nau beñere lotsatzen. Exposizioan. premiatutako ardoa zegoala saltzen, edatera jua nintzan, geitxo nunbait edan nuan, eta gero emazteak jipoia.  
 —Orretxegatik beragatik merezi zenduke kartzela.  
 —Nola da ori, jauna? Ardoari premia eta ardo-edaliari kartzela? Berriz ere ibiliko gera gabiltzan bezela. *¿Dónde está kusticia?*

### III

- Zer erantzuten, diozu zuk. Pilipa, zure senarrari?  
 —Igande gabian eskalletan bera erori zan, eta kolpe bakoitzean «*mala mujer*» esanaz, an jua zan.  
 —Aizan: gure etxiak eztiñ eskellerarik. Ez al dakiñ piso llanuan bizi gerala?



—Zuen artetik egia ateratzeko mutill azkarra izan bear dik —esan zuan juezak—, baña amaitu dezagun. Pilipa: astelen goizean jo zinduzen zure senarrak?

—Jo? Bai eun aldiz ere; alako jipoirik!...

—Egia ote da ori?

—Ez, jauna, —senarrak—. Ardura gabekotxoa da nere emaztea, eta sarritan ibilli oi da erropa zikiñakiñ, ni lotsatzeraño: oitua nago orren erropai autsak astintzen, eta astelen goizian, ikusi nuanian orren soñekoa autsez beteta, asi nitzaion autsak astintzen zigor batekiñ, eta, nik pentsa-tuko nuan ba, nere emaztea soñeko aren barruan zegoanik?

—Zer uste zenduan ba, soñekoa kolgadorian zegoala? Kolgadore asko dezute etxian?

—Kolgadurasak, armiarmak egiñak, naikua ta geiegi.

—Ba, ba, bukatu dezadan: Epaia (sententzia): Pilipak eman bezakio jipoi bat bat bere senarrari, jaka autsez zikindurik ikusten dionian.

—Konforme zaudete biok?

—Bai, jauna, —erantzun zuten senar-emazteak.

## IV

Bigaramonean saldu zuen senarrak jaka eta esan zion emazteari: Pas-tekun.

1902-ko Bagillaren 2-an «Ibaizabal» 23-n gueia,  
1902-ko Bagillaren (Garagarrillaren) 8-11.

## ASTO POLIT BAT

Asto baten tratua  
emen nai det esan,  
nola egin genduan  
merkatuko plazan;  
ijito bat saltzalle,  
erosle ni nintzan,  
ara gure tratua  
zer moduz egiñ zan.

Amar duro eskatu  
ta biyan eman,  
etzalako onore  
ibiltzia teman,  
ondo jaten du baña  
egunero merman,  
petardo txarra eztet  
onekiñ eraman.

Lurrean etzan eta  
ezin degu jaiki,  
naiz ta ezur ta mami  
makillaz ebaki;  
ala ta guziz ere  
jaten du ederki,  
zer jenerazio dan  
Jaungoikoak daki.

Oso nekez ematen  
baditu bi pauso,  
lurrera erori ta  
eziñ degu jaso;  
berdin da esatea  
naiz *arre* ta naiz *sa*,  
eziñ dio beñere  
lanari eraso.



Bere palten artian  
gauza bat du ona,  
aitzaki gabe jaten  
ematen zaiona,  
garagarra lastoa  
ta naiz baberruna,  
ortan ez ta batere  
kunplimentu-duna.

Askotan zaio aizez  
betetzen barruna,  
atzetikan boteaz  
kia ta lurruna;  
baita ere jotzen du  
zoli zinburruna,  
gor badago zurtzeko  
alboko laguna.

Nik nai nikio oraiñ  
berez iltzen utzi;  
ez dezadala, dio  
saltzalleak, etsi,  
damutu eztakidan  
bigar edo etzi;  
gaixoak ez omen du  
orixe merezi.

Erantzuten badiot  
daukadala salgai,  
amalau errialen  
badit erosi nai,  
berealaxe dio:  
«Ondo da, jauna, bai,  
artuko diot bigar,  
egon bedi alai».

Saltzalleari gero  
eman diot auzi,  
baña kondenatu nau  
kostu eta guzi;  
zuzen-bidean bear  
nuan irabazi,  
baña kontuan nonbait  
belutxo naiz jausi.

Nerez jenioa det  
osoro estua,  
saltzalleak du berriz  
lasai ta bastua;  
baña berak dionez  
da gizon prestua,  
ala eman omen dit  
aiñ merke astua.

Ardien kulpak ditu  
pagatzen bildotsak,  
asto gaixoak ditu  
maiz artutzen otsak;  
kanpotikan bero ta  
barrutikan otzak,  
akabatuko dute  
aurtengo izotzak.

Bentaja geiago're  
astoak baditu,  
sekulan eztiranak  
munduan aditu;  
baña eztet nai iñor  
geyegi arritu,  
gezurtizat ez nadiñ  
munduan gelditu.

«Baserritarra», n.º 36, Otsailaren 17-an, 1906-an.





## KRIELISON PATENOSTER

Etzegoen Tunbalerorentzat errian gizon ondraduagorik Pelis ikasle edo *estudiantia* baiño. Eta Pelisenzat berriz lurbira guzian etzen Tunbale-ro baiño gizon oberik, eta izan ere etzitekien; eta ala ere baziran, leku guzietan bezela, an ere inbidiosuak, egjak esaten zituztenak bai, baiña inbidiaz, ez beñepeiñ ondo naiz.

Tunbalero Andaluziako trozoetan arrantxero asita mutill nagusira eldu zala, eta erdi arra ta erdi droga kuarto apur batzuek egin zituela, eta orain markes bat bezela zebilela. Pelisek zazpi urte zeramazkiela ikaste-txe batean, eta sei kalabaza etxeratu zituela; eta oraiñ Tunbalero ta Pelis beren ustetan diputau ainbat bazirala.

Koorriente —esaten zuen Tunbalerok— baiño nori zer dio?

Eta, *amid*, ixilldu egin bear. Baiño etzuen iduki izan beñere Tunba-lerok diputau izateko asmorik; zergatik eze diputau izateko diru asko atera bearko zukean, eta, egia esateko, bere buruaren urrengo geien maite zuena, dirua zan.

Bera izango bazitekien Españaiko *hacienda de ministro*, dirua ingura-tuko omen zukean bai, eta ara nola kontuak ateratzen zituen: «Gaur, ikus-ten degunez, diputau ateratzen kostatzen da gutxienez bost milla duro bakoitzeko, eta diru ori dijoa ardantegi, ostatu eta kapetxetara, beñepeiñ geiena, gorputzen kaltean eta animen gaitzean; eta errietan berriz, boto-ak dirala ta eztirala, milla asarre sortzen dira. Atera bitez botoak kandela edo errematera, eta oien dirua dijoala aziendako kajara; egia da *zinzerr* *leporala* lapikorako geldituko litzakiela baiño len ere ala gelditzen da. Eta era onetan biziko giñake gozoro errietan, eta aziendak izango luke diru geiago».

Arrazoa etzuela ere eztet esaten, baiño, besteren etxea gobernatzan zebillen bitartean, berea bestek gobernatzan zion. Pelisi etzijoakion aiñ gaizki ere Tunbalerorekin, ondo esan eta urdailla aren lepotik maiz samar berdintzen zuela, biotz samurrekoa ezpazan ere Tunbalero jauna.

Eiztari ere bazan edo izan nai zukean beñepeiñ Tunbalerok. Oi zebillen mendiz mendi; baiño, berak esaten zuen bezela, bazterren lotsa-garri, egundaiño egazti-luma bat ere beregandu ezin zuela, eta beti txaku-rra oi zuen txarra. Berak Andaluzian ill izan zituen eperrak eta erbiak nai ainbat, baiño txakurrak ere an onak zituen. Emen etzuen txakur onik, eta argatik edozer gauza emango zukean txakur on bat beregantzegatik.

Pelisek bazituen bere antzeko bi lagun andik urrean, eta aietako, batek zuen txakur bat «Jantalo» izena zuena, eta izenaren jabe zana. Iru lagunak artu zuten txakur onekiñ Tunbalerori ziri bat sartzeko asmoa.

Ara bi lagun an, txakur bat erdian dutela. Zer darabilte? Txakurraren sal-erosia; berrogei ta bost ogerleko eskatzen saltzailleak, eta berrogei ta bi t'erdi eskeintzen erosleak. Uraxe bai txakurra! Probentzia guzian ere berdiñik etzuen. Erosleak ere aitor zuen ori; baiño berrogei ta bi t'erdi ogerleko ere diru ederra zan. Eldu ziran Pelis eta Tunbalero sal-erosleak-gana, eta, jakitean bigarrenak gertatzen zena, eskeiñi zituen berrogei ta tau ogerleko eta txakurra beregandu zuen, esker Pelisekin joanari, zerga-tik, bakarrik joan balitz, etzuen aiñ

errez bereganduko txakurra, bada nola Pelis beste bien adiskidea zan, eta geiago Tunbalerorena, Pelisen bitartekotasunagatik egin zioten grazia, edo, euskera garbian esateko, jo zioten adarra Tunbalerori; bada berrogei ta lau ogerleko aietatik amar izan ziran Pelisenzat; eta beste bientzat amazapia. Bai, Pelis, Pelison eta Pelisitos, irurak ziran bata baiño bestea piñagoak onelako lanetan.

Txakurrak ederra zirudien, baiño izen ura, au da, «Jantalo», etzi-tzaion ondo iduritzen Tunbalerori, eta ala ipiñi zion izen berria: «Korri-do». Txakurrak etzeritzon ondo izen oni, eta orregatik lengoarekiñ jarrai-tzen zuen, izenez ezpazan ere., beñepeiñ izanez. Erbiak osasunaz eta ugari zebiltzen, baseritar batzuek eskuakiñ arrapatzen zituztela noizik-peñbetan. Kalparregi-ko Joaneri erosi zion Tunbalerok, eizera joan zan aldi batean, erbi bat, oso ederra, ogei errealean. «Lotu anka batetik. ixegi zugatz batetik, tiro batez ill eta etxera, txakur ta erbiarekin» zion Tunba-lerok. Esan ta egiñ, ipiñi zuen zintzillik zugatz batetik eta tump! ... Arraia! Ur eman zion, baiño erbiaren lekuan jo zuen lokarria; au erre zan; eta erbia, ez agur eta ez *arío*, eta eskerrik ere eman gabe bere libratzailleari, nunbait presa zuelako, joan zan igesi.

Eztakit negarrik egin zuen Tunbalerok egun artan, baiño, egin ezpa-zuen ere, urrean zuen.

## II

Txakurra saltzea gogoak eman zion Tunbalerori, ez txarra zalako, —ona zalako ere ez—, baiño bera ere zaartuaz zijoa, eta astundu zan eize-rako. Ordea, nork erosi naiko zuen?



—Jesus! Erosleak izango ziran bai. Korrido! Ez al zan arraietan txakur primerakoa ala? Erosleak? Buruan illerik adiña bai.

—Aizu, Pelis.

—Zer nai du, Tunbalero?

—Nola zuen izena gure txakurratik berrogei ta bi t'erdia ogerleko eskeiñi zituen gazte ark?

—Pelison.

—A, bai! Krielison. Naiko ote luke erosi txakurra?

—Eztakit ba, lenago errenkuratua dago bedorrekin ta...

—Nerekiñ? Zergatik?

—Berak nai zukean txakurra eraman omen zion ta...

—Ori da guzia? Ba, ba! *Escrípulo de moja*.

—Onena izango da, bazkari on bat jarri, eta datorrela jatera, eta arreraziko al diogu nolabait ere.

—Ez aiz aiñ gaizki ere pundatzen.

—Eta danboliteroa zera?

—Bai, jauna; eta, sinistu nai ezpalu ere, soñua joko diet pandango bat bota dezan.

—Ez, eskerrik asko: naikoa soiñu, au da, naikoa adar jo dirazu, eta oraiñ zoaz Jaungoikoarekiñ, *Krielison*.

—Ondo geldi bedi, *Patenoster*.

«Ibaizabal», 48, 1902-ko Azaroa-ren 30-n.

### III

Bazkal ostean neurtu zuen Krielisonek txakurra. Ai ura lastima! Izan bazuen buztana ontza bete luzeago!... Baiño lastima!... (Buruari azka).

—Krielison.

—Zer nai du, Tunbalero?

—Ontza baten gora-berak ainbeste esan nai du eiza-txakur bategan?

—Ez, jauna, baiño nik eziet nai txakurra eizerako.

—Zertarako ba?

—Ara, jauna: ni naiz danbolinteroa, eta oraiñ danbolin berria egiteko asmoan nabill. Txakur orren larruarekiñ egin ditekela uste det; baiño gaiñera txistu edo txirolari ere egiñ nai nikio bere zorro edo estalkia, baiño lastima!... Buztana ontza bete laburrago da txistua baiño. Bazkal aurretik neurri bagendu ere!... Baiño oraiñ lastima!...

—Adiskidea: Andaluzian ere ibillita nago, baiño zu bezelako andaluzik eztet ikusi.

—Izan diteke, sinisten diot. Nik eztakit; baiño aditu izan det, andaluzak gezurtiak dirala; eta orretan, ez neronek diodalako baiño, ezti orandik iñork ikusi gezurrik.

—Ez; baiño zure egiak Andaluziak dirudite.

—Bai, jauna: nik beti egia; eta egia nonai beti da egia.



## IJITOAK KONFESIOAN

- ...eta zazpigarrenean ezer bedezu?  
 —Saski barrenean... eztet ba ezer, jauna, esateko moduko gauzarik.  
 —Eztizut esaten saski barrenean, baizik zazpigarren mandamentuan.  
 —Ai, ai! Mando-kontuan ari da beori; baña ez, jauna. mando-mantarik eztet.  
 —Esan diteke gorra zaudela.  
 —Gogorra... arrazaz denok gera, jauna, gogorrak.  
 —Eztet esaten gogorra, baizik gorra.  
 —Bai, bai; oraintxe entenditzen diot; bedori erderaz ari da. Gorra txapelari esaten diote erdaldunak. Maixu zarrak ere gorra deitzen zion: aserre zanian, berriz, «porra» esaten zuan.  
 —Gorra ta porra, badakizkitzu Jaungoikoaren mandamentuak?  
 —Bai, jauna.  
 —Zazpigarrena?  
 —Ai, jauna! Barka beza: oraintxe obeki entenditzen diot: porra... porra... borra... borratua esan naiko du bedorrek.  
 —Nola borratua?  
 —Len zan: zazpigarrena ez ostutzea, eta oraiñ, ura borratu eta ez arrapatzia; ala dio gure kuartillak.  
 —Dana dala, ezer arrapatu dezu?  
 —Ez, jauna: olloak jarraika ibilli izandu naiz, baña zarra're banago ta alperrik.  
 —Iñoren gauzik badezu?  
 —Iñorena izana bai, baiña...  
 —Zer baiña?  
 —Orain nerea.  
 —Zer da ba?  
 —Ara, jauna: erlojo auxen.  
 —Arrapatua al da?  
 —Ez, jauna; geldi-geldi zegoan, nik artu nuanian.  
 —Bada iñorena da?  
 —Ez jauna; Aizpetako nagusiarena zan.  
 —Eta ez al da ura iñor?

- Ez, jauna; ez al du ezagutzen? Pixpili iru arrua ezta ta... izango da ba ura iñor?  
 —Ba lenbiziko egin bear dezuna da, utzi pillosopia guziak, eta erlojua ere utzi, artu zenduan lekuan.  
 —Ai, jauna: pillosopia uzteko konporme nago, baiña erlojua... karanba!  
 —Zergatik ez erlojua?  
 —Traba askotxo dago bide ortan.  
 —Eta artu zenduanian etzegoan trabarik?  
 —Nik dakit ondo: eta argatik diot orain ere.  
 —Eta orduan aldendu ziñuzen traba guziak?  
 —Bai, jauna, guzi-guziak.  
 —Bada orain ere egizu ori bera; eta utzi erlojua artu zenduan leku artan bertan, kostako dana kosta.  
 —Jauna: preziso-prezisoa bada, saiatuko naiz.  
 —Prezisoa dezu ba asoluzioa artzeko.  
 —Ondo da, jauna: ando geldi bedi ta agur; datorren urte arte.

## II

- Ola, Manis.  
 —Ola, Mitxel.  
 —Zer gizon-modu degu don Malizio ori?  
 —Gizon polita da, mauka estutxoa da baiña...  
 —Noiz zuaz berriz?  
 —Aurtengo pasada egin degu beñepeñ ta...  
 —Etzenduan ba esan erlojua?  
 —Bai, baña biurtu nuen.  
 —Trabarik arkitu?  
 —Bai, gizona, bai; baiña, kostako zana kosta, traba guziak kentzeko ordena eman zidan ta...  
 —Bai; usterik gutxien dan lekuan trabarik andiena askotan izan oi da.  
 —Esango nuke. Erlojo-ontzian nere erlojoa uztera nijoala, bertan trabarik andiena.  
 —Zer zegoan ba?  
 —Beste erlojo bat.



- Eta zer egin zenduan?  
 —Zer egin nuan... kendu!  
 —Artu?  
 —Artu eta utzi nere bere lekuan.  
 —Beraz len baiño geizkigo gelditu ziñan?  
 —Len baio geizkigo, zillarrezkoa utzirik, urrezkoa artuta?  
 —Berriz ere joan bearko dezu ba Don Maliziozana.  
 —Zer egitera? Berriz ere len agindu didana agindu dagidan, eta erlojo bat eraman ta bestea ekarri, erlojuaren pendola bezela beti atzera ta aurrera ibiltzera. Ez, ez; eztegu monumento kontinoaren (*movimiento continuo*) bearrik.  
 —Beraz bakarrik joan bearko det nik?  
 —Bai, eta, ondo ibilli nai badezu, kontu mingañari; baraurik juan eta berriketa gutxi.  
 —Zer esan nai dezu orrekiñ?  
 —Ez aitatzeko ollar-konturik.  
 —Ez?  
 —Ez; bestela or ibilli bearko dezu monumento kontinoan; eta bidian kukurruku egiten badizu...  
 —O! Enuke nai.  
 —Ba... ez izan berritxu.

«Argia»

## LASTURREK ZER DIÑO?

Gizaseme bat gazte izana,  
 oraindik zartu gabia,  
 ondasun asko izan ez arren  
 kitarra baten jabia;  
 ona naiz baiña umoria det  
 nerau baño're obia,  
 triste daudenak kontsolatzera  
 mundura naiz etorria.

Jaungoikuari asko zor diot,  
 esan biar det egia,  
 ematen dizkit osasuna ta  
 eguneroko ogia;  
 nere bizitzan ez naiz kondeen  
 ez markesen enbidia,  
 izan ezkeru kitarra jo ta  
 kantatutzeko bidia.

Aste guztian lanian gogor,  
 beti jairako pozian,  
 loteriarik ez da partzeko  
 poza nere biotzian;  
 txoria baiño alegriago  
 arkitzen naiz jai-goizian,  
 inguru danak ere poztutzen  
 ditut kitarra jotzian.

Jan-gogo onaz eta lo berriz  
 nai baio ere obeki,  
 ditxa geiago ezin lezake  
 emen gizonak iduki;  
 erostekoak balira diruz  
 pobriak giñake gaizki,  
 baiña nori zer eman Jainkoak  
 guk baiño obeto daki.



Pobre izanik lana egiten  
 ikasi nuan gazterik,  
 baiña Jainkoak ez du nai izan  
 nunbait ni aberasterik;  
 aziendarik nererik ez det  
 kitarra zar bat besterik,  
 il ta gero're ez det pensatzen  
 nere kitarra uzterik.

Jai pasa eta astelenian  
 berriz eraso lanari,  
 onela diot gusto berria beti  
 arkitzen janari;  
 egunak ondo juango zaizkio  
 onela bizi danari,  
 loteri au da opa diona  
 Lasturrek mundu danari.

«Argia»

## IJITOAK LIBERTADIAN

### I

—Uuuuufa... *biba libertad!* Auxe bai dala auxe!  
 —Bai, Anton; baiña eztegu asko gure buruak libratzea; beste preso  
 daudenakgatik ere zerbait egi bear degu.  
 —Zergatik esaten didazu ori, Kuleta  
 —Bazeneki nik dakidan gauza bat...  
 —Zer gauza da ba ori?  
 —Zer? Soroandiko baserrian, salako kutxakasketian, daude preso  
 zazpi ontza-urre, —lau txerriren balioa—, eta eztegu izango erruki andi-  
 rik preso gaixoentzat, aiek an uzten baditugu.  
 —Ez estutu, Kuleta. Egingo degu alegia libratzeko. Gerok ere  
 ontzako bat badegu, eta *juego de manos*-ak ere badakizkigu ta... *ánimo*, Kule-  
 ta. Goazen Soroandira.

### II

—Abe Maria! ... Iñor bada emen?  
 —O, Anton eta Kuleta! Zuek emendik?  
 —Bai ba; guardasolik konpontzeko ote dezuten...  
 —Ez ba; eztaukagu. Nundik ibilli zerate aspaldian?  
 —Kartzelan, Mikela maitea, kartzelan.  
 —Kartzelan? Eta zergatik?  
 —Mesede andi bat egiteagatik.  
 —Sinisten dizutet. Orain mundu gaiztoa dago.  
 —Ba... ari giñan dirua egiten adiskide pobre batentzat ixillik, baiña  
 adiskide onek. pozaren pozaz, *konpianzan*, beste bati esan, onek *inbidia*,  
*gobiernuari parte* eman, eta gu kartzelan.  
 —Eta dirua egiten badakizute?  
 —*Ya lu creo*.  
 —Eta zuek ala ere aiñ *pobre?*  
 —Guri dirua egiteko eskubidea eman zigunak, pobreentzat egiteko  
 eman zigun, ez guretzat.  
 mmorm;  
 —Emen gaude ba, gu ere, *pobre* asko.



- Nai dezute aberastu?  
 —Nai?... Bai orixe.  
 —Ba, hamabost egunen buruko, eun ontza-urreren jabe egiñ zin-  
 dezketek.  
 —Eta zenbat kostako litzake?  
 —Ntsa; amar *zentimo*, eta *sekretoa*; au da, ixillik ibilli; au da bearrena.  
 —Siñistek ere lanak ditu.  
 —Gizona: zer galtzen dezu *prueba* egitearekiñ? Geienaz ere amar  
*zentimo*.  
 —Ezta asko.  
 —Gaur ematen badidazu txakur andi bat, bigarko pezeta biurtuko  
 zaitzu; bigar pezeta ura biurtuko da duro; etzi, durua ontzako-urre; etzi-  
 damuko, ontzako arekiñ izango ditzu bi, aiekiñ lau, eta ala, egunetik egu-  
 nera geituaz juango dira ontzako-urreak.

### III

Eman zioten txakur andi bat, eta Antonek paper batian bildu, guru-  
 tze bat egiñ,  
 aopian zerbait esanaz, gabeko amabietan zabaltzeko papera, eta arkituko  
 zutela pezeta, eta, nai bazuten pezeta ura duro biurtu, joateko bigaramo-  
 nian beregana, ola zarrera, eta berdiñ egingo ziela.

Antonek esan bezela, guzia gertatu zitzairen: txakur andiarekiñ, peze-  
 ta; pezetarekiñ, durua; duruarekiñ, ontzako-urrea.

- Aizazu, Mikela.  
 —Zer nai dezu, Patriz?  
 —Ezta au txantxetako gauza, eta betoz ijitoak onera.  
 Etzuten izan bi aldiz abisatu bearrik.  
 —Ola, Patriz; nola goaz?  
 —Ez ba gaizki're.  
 —Ez; amar zentimorekiñ ontzakoaren jabe egiñ zera iru egunian ta...  
 —Alaxe da ba, baña begira: Ontzako onekiñ egin ditezke bi, bigarko?  
 —Oraindik ere dudan zaude?  
 —Ez, baña beste gauza bat nai det jakiñ.  
 —Zer da ba?  
 —Bi ontzako gaur ipiñita, egin ditezke lau bigarko?

—Baita laurekin zortzi, ta zortzirekiñ amasei ere; eta, ogei ekartzen  
 badizkidatzu, berrogei izango dituzu, eta ez egon atzera begira, bada etzi  
 lan auxe bera egitera joan bear det beste leku batera; ona emen *karta*. *Ben-*

*guste kuantu mas antes mas mejor: aki estan prest beinte potes ojalataos kon ontza-  
 kos llenos, sakaos de Banko, para berinkar uste, y aumentar como chindurris.*

- Ekarriko ditut ba al ditudan guziak, norbaiti eskatuta bada ere.  
 —Ez iñori eskatu; bestela, parte emango balu, kartzelara joan bear-  
 ko genduke. Obe dezu ontzako bakar orrekiñ bi egiñ; bi aiekiñ, lau; eta  
 gero, berriz biurtzen naizenian,  
 geituko ditugu.

—Ara ba: egia esateko, ortxe dauzkat zazpi ontza-urre, lau txerriren  
 balioa; oraingo berriarekin zortzi dira. Egiñ ditezke oiekin amasei bigar-  
 ko, eta etziko ogei t'amabi?

—Ori bai.

—Ona ba emen zortzi ontzakoak.

Antonek sartu zituan zortzi ontzakoak sedazko poltsa txiki batean,  
 Patriz eta Mikelaren aurrean; josi zuan ondo poltsa, eta iru gurutze egiñ  
 eta eman zien, esanaz gabeko amabietan idikitzeko.

### IV

Etziran etorri gabeko amabiak nai baño len, baña noizbait ere jo  
 zuten zorionean edo zorigaitzoan. Poltsa presaka askatu ta idiki zan, eta  
 arkitu ziran hamasei... txakur txiki.

Joan ziran lasterka senar-emazteak ola zarrera; baña lasterrago joan  
 ziran andik —eztakigu nora— Anton eta Kuleta; ala ere arkitu zuten  
 senar-emazte Patriz eta Mikelak beren *konsuelorako* sedazko poltsa bat,  
 ontzakoak sartu izan ziran aren berdiñ-berdiña; eta bere barruan paper-  
 txo bat izkribaturik onela:

Esango badet oso  
 argiro egia,  
 zuen gutizia da  
 izan geiegia;  
 andiango berriz  
 oraiñ naigabia,  
 txoriak jua ta utsik  
 uztian kabia.



## NESKA-ZARRAK

### I

- Patxi: bai al dakizu neskazarren berririk?
- Santuen bizitzak baiño obeki.
- Zer moduzkoak izan oi dira ba?
- Oso onak... berena egin ezker.
- Eta danak dira berdiak?
- Ez, klase askotakoak dira.
- Asko ezagutzen dituzu?
- Nik etxean dauzkat bi klasetako muestrak: bata da eulia bezelakoa, eta bestea erlabioaren antzekoa.
- Beraz eulia ta erlabioa, ezta ala?
- Orixe da.

### II EULIA

- Zer moduzkoa da au?
- Eztakizu eulia zer modutakoa dan?
- Eulia lagun txarra oi da; beti traban eta beti kendu eziñik gañetik.
- Eztezu ba asko ohea neskazar klase au.
- Eulia, alegia, sartu oi da sopatan, esnetan, eztitan eta onelako gauza askotan, guziak alperrik galtzeko.
- Ba neskazar klase au sartuko zaitzu bear eztan leku guzian.
- Nik uste nuan sustantzia geitxuago izango zutela.
- Ba desengañatu zaite.
- Olio gabeko porru-saldak ainbat sustantzia geienez ere, beraz, zuk diozunez.
- Porru-salda olio-gabekoari «*señora*» deitu bear lioke onelako neskazarrak.
- Komentu batean sartu bear zenduke.
- Irutan ere sartu det, baña atzera etxera etorri zait.
- Ezkundu dedilla.

- Ezin ordea ezkondu bakarrik.
- Zer erremedio dago ba?
- Bat bakarra.
- Zein da?
- Pazientzia.
- Nork emango du?
- Neskazar euliak artu erazoko dizu.
- Bueno, basta; entendido.*

### III ERLABIOA

- Per signum crucis...*
- Zer ari zera, gizona?
- Zer ari naizen?
- Bai.
- Konjurua egiten.
- Zertarako?
- Erlabioen kontra.
- Gizona: emen eztago erlabiorik.
- Baña eztezu ba ikasi nai nola tratatu erlabioakin?
- Bai; da esatea, neskazar bigarren klase orrekiñ.
- Berdin dezu ba; konjurua egiten ikasi bear dezu.
- Baña, konjurua egiten badiet, iges egingo didate.
- Ez zuk uste bezin errez; eta, iges egingo balute ere, etzenduke kalte andirik izango.
- Ain txarrak dira?
- Bai; piper miñ utsa jaten dutela dirudite.
- Eta mingaña?
- Errotarria baña ligorago.
- Eta gobiernua?
- Besteren etxearena ederki, baña bere etxea... *la casa sin barrer.*
- Eta talentuz?
- Oso azkarrak dira. Jakinduria osorik iñork ere eztu munduan, eta aueri ere gauza bat palta zaie.
- Gañerakoak badakizkitez?
- Bai; bakarrik bat palta zaie.



—Zer da bakar ori?

—Beren obligazioak ez jakitea; orixe da duten palta bakarra.

—Inñorenak badakizkitez?

—Bai, guzi-guziak.

—Eta egi-esaleak dira?

—Bai, orretan firme egongo dira. Gure erlabioak oraiñ ogei t'amar urte esaten zuan ogei ta lau urte zeuzkala, eta gaur ere firme dago bere ogei ta lauetan. Eztu esango ark gaur gauza bat eta bigar beste bat.

—Betozkorik?

—Anbotoko señoarak baño beltzagoa. Ezagutu nuan klase onetako bat, antziñako Napoleon-ekiñ granaderuetako sarjento ibillia.

—Ba, ba: mustratzat botoe bat da naikua. Milla esker. bai, zure inpromakaitik eta, oraiñ artean bezela, aurrera ere, neskazarren izena entzutean, esango det: *Liberanos, Domine*.

Neskazarren lagun batek.

Elgoibarren «Ibaizabal» 70, 1903-ko Maiatza-ren 3-n.

## IJITOAK SENAR-EMAZTEAK

### I

—Ai, Prantxisku, Prantxisku!

—Zer degu Mariñton?

—Orai ere juezak deitzen dizu.

—Eta orrengatik zaude triste?

—Ai au lotsa!

—Lotsa juezaren aurrera joateko?

—Bai, ta ez txikia.

—Zergatik ba?

—Ai, ai, gure pama!

—Juezak dituzu ba presonarik piñenak: estimatu egi bear zenduke ark deitzea.

—Bai, baña... gure pama...

—Gure pama ez digute kenduko. Or ikusiko dezu paperetan, Prantxisku Etxeberria-k zer esan duan juezaren aurrean, zeñ iztun ederra dan, diputadu ta senadoretzat egokia litzakela ta...

—Ta zer? Errenta jarriko dizutela?

—Jarri bearrik eztegu, gerok artzen eztegu ba bear deguna? Nai dezun guzia eztizut ekartzen? Zer palta zaitzu?

—Pama galtzia, ordia, penagarria da.

—Duanari galtzen zaio.

—Mormorreta txarrak dabilta kanpu ortan.

—Baña bokadu ta tragu onak barru ontan, gañera soñeko berria miriñake, polizoi ta beste gauzak, eta alare espa edo kejak? Juezaren seño-ra baño apañago jarriko zaitut eta ez jo emen illetarik. Puera illetas.

### II

#### Juezaren aurrean

—Prantxisku.

—Jauna.

—Egia esango dezu juramentuen bian?

—Bai, jauna; ni beti egiaren zale naiz.





- Beti-beti, bai ote?  
 —Bai, jauna, bai; naiz, goikoaz bera ta naiz atzekoz aurrera, nik beti egia.  
 —Eta goikoaz bera ta atzekoaz aurrerako egiak, gezurrak dirala badakizu?  
 —Enekian, jauna.  
 —Ba aurrerakoan jaki ezazu.  
 —Ondo da, jauna, ta estimatzen diot bedorren erakutsia.  
 —Eta mandakoa norena da?  
 —Nerea, jauna; esan nion orain zortzi egun ere juramentuaren bian.  
 —Ez da Pellizena?  
 —Ez, jauna; nerea ta Mariñtonena.  
 —Nor da Mariñton?  
 —Nere emaztea.  
 —Depositatu egiñ bear dezu ba.  
 —Saldu det ordia.  
 —Kobratu're bai?  
 —Bai, jauna.  
 —Beraz dirua depositatu bear dezu.  
 —Baña, jauna, emaztea señoartzeko soñeko berria, miriñakea ta polizoia erosten kastatu det dirua, ta onena izango degu, nere emazte señoartua, bere jantzi ta guzi depositatzea.  
 —Ez: zedorri depositatuko zaitugu kalabozan, zortzi egun barru dirua depositatzen ezpadezu.  
 —Ondo da, jauna; besterik ezpada, emaztea dagoan bezela salduta...

### III Senar-emazteak

- Ai Prantxisku! Pazkoak ere badatoz ba.  
 —Ongi etorriak izan ditezela. Bildotx eder bat inguratu ezazu ta...  
 —Eta Pazkoakoa?  
 —Egiñ.  
 —Nola?  
 —Beste urtetan bezela.  
 —Beste urtetan zazpigarren mandamentuak ematen zigun naikua lan; aurten gañera bigarrena daukagu.  
 —Zeiñ da bigarrena?  
 —Juramentu alperrik ez egitea.

- Nork egin du?  
 —Zuk.  
 —Ez, por zierto.  
 —Gezuraren gañian, bai, egin dezu.  
 —Bai; baña alperrik ere bai? Alajaña, mandakoa etxeratu, zu erre-giña bezela jantzi zaitut, eta alare alperrik egin dedala?  
 —Egiak salbatu bear gaituala esaten du Prai Pillipek.  
 —Bai alegia beste munduan, baña emen?  
 —An ta emen.  
 —Amen, ba, amen.

### IV

- Mariñton: ill omen zaitzu senarra.  
 —Bai, Martiña, bai.  
 —Zer izan du?  
 —Ill bearra gizajoak; on utsa zan, eta Jaungoikoak asko nai zion, ta Beragana eraman du, ta zeruaren erdi-erdian dago egiak salbatu bear bagaitu.  
 —Ala izan dedilla.  
 —Esango luke juez jaunak: gizajoak munduan egi bakar bat ere etzuan esan; guziyak zerurako gorde zituan.  
 —An atsedeen dezala ba.

### V Illerrian

Prantxisku ijitoa  
 osoro zuzena  
 da orain lurpeturik  
 emen dagoena,  
 lurbiran izandu zan  
 gizonik onena,  
 oroipen au da bere  
 emaztearena.

«Baserritarra», n.º 108. Donostiyan.

1908-ko Azaroaren 21-an.



## IJITOAK JUEZAREN AURREAN

### I

- Izena?
- Erramun.
- Erramun?
- Bai, jauna.
- Len Jose zenduan ba.
- Bai, jauna, baña izen ori onuzkero aitua izan bear du.
- Aitua?
- Bai, jauna.
- Zergatik ba?
- Or dabilte berok paper eta tinta artean eta...
- Ibilli bear.
- Bai ba, ori diot nik ere.
- Eta orrengatik izena aitua?
- Nik eztakit ba, baña juez artian dabiltenak asko kastatu bear duala esaten dute, ta nik, izena ez izanik, gañerakoan ondasunik eztet beñepeñi kastatzeko ta...
- Guazen ba. Orain Erramun zera beraz, ezta ala?
- Bai, jauna; amona zarrak esan oi zidan, berberak bataiatu nindua-la Erramu egunian.
- Nun jayo ta bataiatu ziñan ba?
- Lenengo Urnieta-n, gero...
- Beñ baño geiagotan jaioa al zera?
- Ez, baña iru aldiz bataiatua bai.
- Iru aldiz?
- Bai, jauna; Lenengo Urnieta-n, gero Legorreta-n, eta urrengo Amezketa-n.
- ...Etan ...etan ...etan. Etan askotxo dago or gauz onik izateko.
- Bai, jauna. Lenengo izena Jose nuan; ori aitua izan biar du. Bigarrena Erramun.
- Irugarrena?

- Ori utzi dezagun bigarrena aitzen danerako.
- Lonbria?
- Etxezarra.
- Len Etxeberria zenduan ba.
- Bai, jauna, baña berria're denborarekin zartu egiten da.
- Zuk eztezu ba oraindik urte asko.
- Nik ez, baña etxeak bai.
- Opizioa?
- Betikoa, jauna.
- Ez al da aitzen?
- Ezta ba beti nai beziñ ugariya lana izaten, baña...
- Mando moztent?
- Bai, jauna.
- Sakelak ere bai?
- Ortarako berok ere eztira izango, makalak.
- Zer esan nai dezu orrekiñ
- Gure amonak esan oi zuena.
- Zer?
- Auzilarien artian, galtzalea larru gorrian gelditzen zala.
- Bai, baña irabaztallea?
- Alkandor'utsean.
- Eztezu beste opiziorik mando moztea baño?
- Bai, jauna; ni naiz desamortizadorea.
- Izena jakitea're ezta gutxi.
- Alaxe naiz Ba, opizioa eztet mudatu; izena bakarrik.
- Desamortizatzaera jua al ziñan arkupeko denda berriko kajara?
- Bai, jauna.
- Zer eskubiderekiiñ?
- Nere esku biakiñ.
- Eta eskubidea nork eman?
- Neronek artu.
- Zer artu zedorrek?
- Esku-bidean arkitu nuan guzia.
- Zer arkitu zenduan?
- Sei ontzurre egiñak.
- Bai; ez al ziran izango nonbait, egiñ gabeak.
- Ez, jauna, egiñak, eta ederki alare, begia alaitzeko moduan.
- Zer egi zien sei ontzurreai?
- Desamortizatu.



—Nola?

—An zeuden kajan illik bezela geldi-geldi, ta oriatzera atera nituan.

—Zergatik ori?

—Gure legeak agintzen dualako, iñork eztezala iduki, zaitu al baño diru geiago.

—Eta dendariak ezin zaitu al zituan sei ontzurreak?

—Zaitu balitu, enituan nik desamortizatuko.

—Nun daude oraiñ?

—Oraingo jabeak ondo zaituko dituan lekuan.

—Bañan nun daude?

—Uuum! ... Txanton itxuak eun dukat gorde zituan pikope batian.

—Eta?

—Eta... Sokorrek ostu. Bazuan errezeloa Txantonek, Sokor izango zala lapurra, eta bigaramonian an zebillen itxua kalez-kale kantari:

Eun dukat baditut  
pikope batian,  
beste eun jartzera  
nua gaur gabian.

Sokorrek ute izan zuan, atzera jartzen ezpazituan pikopian dukatak, etzituala jarriko an itxuak beste eunak. Biurtu zituan ba atzera eun dukatak gero berreun artzeko ustian, baña itxuak egin zuana izandu zan, ez ipiñi beste eunak, baizik eraman len zeudenak. Bigaramonean atera zan kalera, eta kantatzen zuan Sokorren atean:

El que todo lo quiere  
todo lo pierde,  
berreun daudelakoan  
ua berriz ere.

## II

(Juezak):

Ijitoari egirik iñoiz  
nai badiozu aditu,

zaude kontuan, itz bakoitzian  
bi gezur esango ditu,  
polit-poliki etxe-alderuntz  
al duan guzia bitu,  
gañerakoan or konpon eta  
munduko danekiñ kitu.

«Baserritarra», n.º 146, 1910-ko Orrillaren 7-an.



## ERRAMUN IJTUA

### I

- Ola, aspaldiko Erramun. Bizi zera?  
 —Bai, Don Martin; oraindik ere, nola edo ala, bizi naiz.  
 —Aditu nuan kerizpean sartu zinduztela ta..  
 —Ikusi eziñak edo, obeki esateko, ikusi nai-ezak esan erazotzen ditu orrelako gezurrak.  
 —Gezurak, baña egiaren antzekoak nunbait.  
 —Zenbait gizonek prakak jantzitako atsuak dirudite, beti mormoretan.  
 —Zergatik diozu ori?  
 —Automobilean izan gara emaztea ta biok Lezo-n, eta orixen eziñ ikusi dute, edo eztute ikusi nai, atso-prakadun edo gizon gonak biar lituzteken oiek.  
 —Oiei etzaie jiramonik egiñ bear.  
 —Berak egiten dute ordia.  
 —Utzi diozagun orri, ta esan zadazu: nuin izan zera juan dan aspaldian?  
 —Esango diot, ixillik idukitzeko itza ematen badit.  
 —Emana dago.  
 —Baionan izandu naiz.  
 —Zertan?  
 —Likorista ikasten.  
 —Eta ezerki egin dezu?  
 —Bai, Don Martin, bai; ona emen nun dakarkiodan botilla bat koñak, neronek egiña; progatu beza, eta bigar esango dit zer deritzon.  
 —Ondo da: agur ta bigar arte.  
 —Agur.  
 —Erramun etxeruntz zijuan kantari:

Botillatxo bat koñak  
 diot nik Martiñi,  
 etxean proba dezan  
 oparo eskeñi;

erantzun nai badio  
 erregalo oni,  
 zerbait eman bearko  
 dio Erramuni.

### II

- Zer iritzi dio, Don Martin, atzoko koñakari?  
 —Ezta txarra. Zenbatean emango zenduke botilla?  
 —Bi pezetan, eta asko artzera, sei errealean ere bai.  
 Beldur zan Don Maritin, ziriren bat sartuko ote zion, ez aiñ gaitzaroa zalako, baña ona're etzalako, edo, *vamos...* onenbesterekiñ ulertu ditek. Ala ba, galdetu zion:  
 —Zedorrek egiña da koñak au?  
 —Bai, Don Martin, bai: neronek egiña.  
 —Nere aurrean egingo zenduke?  
 —Etzait konbeni iñori erakustea.  
 —Atoz ba nere etxera, giltzapian jarriko zaitut, bear diran gaiak emango dizkitzut, eta andik irten baño len egingo dezu?  
 —Bai ta pozik alare.  
 —Atoz ba bigar, eta agur.  
 —Agur ba... Enbidia balitz ezkabia, askok bearko luke buruan zapia —zioan ixillik Erramunek.

### III

Bigaramonian juan zan Erramun Martiñen etxera: artu zuan azpill bat, litro bat ur eta sartu zan gelan. Atia kanpotik itxi zuan Martiek, giltza artu zuan, Erramunek zirriparra batzuek atera zituan; ordu baten buruan, atera zuan kontuz botilla bat gerrikotik: an zeukan erariaz, bete zuan Martiñen botilla, eta berea atzera biurtu zuan gerrikora. Jo zuan gelako atia, idiki zion Martiñek, eta eman zion Erramunek botilla esanz:

—Martin, iduki ezazu gaur gabeen serenotan botill au, eta bigar or idukiko dezu koñak ederra, eta oraiñ bigar arte —esan eta abiatu zan etxeruntz kantari:



Banua pama ona  
ederki artuaz,  
eta ziria ere  
Martini sartuaz:  
orain arte ibilli bagera astuaz,  
laster automobil bat  
erostera guaz.

#### IV

—Zer iritzi diozu, Martiñ, koñak berriari?  
—Ezta txarra. Ortzen dauzkat bi barrika utsik eta...  
—Bete ditezke oiek ere.  
—Koñakaz?  
—Aixa. Erreka urrean dago ta...  
—Zenbatengatik beteko ziñuzke koñakaz bi barrik' oiek?  
—Ingredientiak ere bear dira ta... Baionatik kontrabanduan ekarri  
bear dira ta...  
—Dana dala, zenbat bear dezu guzirako?  
—Ogeiren bat duro bearko ditut.  
—Ona emen amar eskuan; artu itzazu, eta beste amarrak emango  
dizkitzut guzia egindakuan.  
—Ondo da.  
—Zenbat egun bear dituzu?  
—Biyar Baionara, etzi etxera, gero bearko ditut lau edo bost egun...  
Edozein modutan ere, gaur zortziko guzia egingo da.  
—Agur ba.  
—Agur.  
Badira esaten dutenak gau artan mozkor andirekin Erramun etxera-  
tu zala, «Biba errepluika!» deadar egiñaz, baña.. bai zera!

#### V

Igaro ziran bost egun eta Erramunen berririk etzan; zurrumurrua  
bazebillen errian, ardozko lisibaren bat egiten ari ote ziran Erramunen  
etxian. Lutxik juan-etorri askotxo egiten zituan ardondegira ta...

—Aizazu, Lutxi.  
—Zer nai du, Don Martin? berririk bada?  
—Bai, jauna; oraintxe netorren bedorregana. Izan det bere eskuti-  
tza. Prantzian preso artu omen dute; eta esaten dit bese amar duruak  
bedorri eskatu ta lenbailen bialtzeko pasaportia ateratzeko.  
—Beste amar duro bialdu? Nere begien aurrean ez geiago agertzea-  
rren bai.  
—Ara ba, jauna: orrenbeste mesede egingo du ba.  
...Su-kanpaia zoli ari zan. Kia ateratzen zan Erramunen etxetik; atea  
bota, ta jendea sartu, ta laster xamar sua itzali zuten. Baionan zala uste zan  
Erramun, an arkitu zuten oian etengabeko mozkorrarekin, zatua eskuan  
zuala, oe guzia plai egiñik; eta jendearen iskamilla somatzean deadar egi-  
ten omen zuan:  
—Alto, kien bibe! Biba erpluika y benga biño!

#### VI

—Erramun.  
—Zer degu?  
—Don Martiñek amar duruak eskatzen omen dizkitzu.  
—Nik bai berari.  
—Zergatik?  
—Lutxiri esan diolako, amar duro emango litukeala ni aren begien  
aurrera ez agertzeagatik.  
—Ori dek Pilosopia!

«Baserritarra»,  
n.º 150, 1910-ko Uztailaren 2-an  
eta «Argia»

